

# 2016

## VI. Mapa Soziolinguistikoa



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>.

Argitaraldia: 1.a, 2020ko urria

Ale-kopurua: 1.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.  
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala: Antton Olariaga

Maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Gráficas Irudi

ISBN: 978-84-457-3570-1

Lege Gordailua: LG G 00782-2020

# AURKIBIDEA

## HITZAURREA

Bingen Zupiria Gorostidi, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua	7
---	---

## VI. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA, 2016

Fitxa teknikoa eta metodologia	11
1. BIZTANLERIA	13
1.1. Biztanleriaren bilakaera eta egitura	13
1.2. Atzerriko immigrazioaren fenomenoak	18
1.3. Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak	22
1.4. Helduen euskalduntzea	27
2. HIZKUNTZA-GAITASUNA	33
2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoan	33
2.2. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera	35
2.3. Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera	37
2.4. Hizkuntza-gaitasuna gune soziolinguistikoaren arabera	39
2.5. Hizkuntza-gaitasuna udalerriaren arabera	42
2.6. Hizkuntza-gaitasuna adinaren eta sexuaren arabera	44

3. LEHEN HIZKUNTZA	53
3.1. Lehen hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan	53
3.2. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera	54
3.3. Lehen hizkuntza eskualdearen arabera	58
3.4. Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera	59
3.5. Lehen hizkuntza udalerriaren arabera	61
3.6. Lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera	62
3.7. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera (BILA indizea)	70
3.8. Euskaldunak lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera	75
4. ETXEKO HIZKUNTZAREN ERABILERA	79
4.1. Etxeko hizkuntzaren erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan	79
4.2. Etxeko hizkuntzaren erabilera lurraldearen arabera	81
4.3. Etxeko hizkuntzaren erabilera eskualdearen arabera	83
4.4. Etxeko hizkuntzaren erabilera gune soziolinguistikoaren arabera	87
4.5. Etxeko hizkuntzaren erabilera udalerriaren arabera	90
4.6. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren eta sexuaren arabera	92
4.7. Etxeko hizkuntzaren erabilera euskaldunen artean, lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera	97
5. LABURBILDUZ	101
6. TAULEN AURKIBIDEA	105
7. IRUDIEN AURKIBIDEA	107

## HITZAURREA



BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI  
Eusko Jaurlaritzako  
Kultura eta Hizkuntza  
Politika sailburua

**E**uskara biziberritu eta gizartean hedatzeko ahaleginak aurrerapauso sendoak egin ditu azken hiru hamarkadatan: 300.000 hiztun baino gehiago irabazi ditu, bereziki belaunaldi gazteenen artean, eta horrez gain, euskararen presentzia areagotu egin da duela gutxira arte arrotz zituen hainbat erabilera-eremutan.

Herritarren eta erakunde publikoen urtetako lanak ekarri gaitu hona. Lege-babesa, adostutako hizkuntza-politika sustatzaileak eta herritarren atxikimendua izan dira, zalantzarik gabe, euskararen akuilu. Izan ere, euskara nekez egongo litzateke dagoen tokian hiru zutabe horien ekarpenik gabe.

Hortaz, iragan luzea eta gorabeheratsua izan duen gure hizkuntzak bide emankorra jorratu du; baina etorkizuna ziurtatzeko bada oraindik zereginik. Langintza horretan, hizkuntza-plangintza eraginkorrena abian jartzeko, ezinbestekoa da euskararen argazkirik gardenena izatea. Horixe da hain zuzen ere Mapa Soziolinguistikoaren balioa eta ekarpena.

Mapa Soziolinguistikoaren bidez, EAEko euskararen egoera eta bilakaera soziala zein den ezagutu dezakegu 5 urtero. Honakoa seigarrena da, eta euskarak azken 30 urteotan egin duen ibilbidea aurkezten du datu estatistikoetan oinarrituta. Horretarako, EUSTATEk Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikan bildutako datuak erabiltzen ditu.

Lan honek oinarritzko hiru aldagai jasotzen ditu: euskararen ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera. Horiekin batera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak landutako BILA indizea (hizkuntza-bilakaeraren tipologia) ere jasotzen da. Aldagai horietatik abiatuta, datuak xehe-xehe aletzeko aukera eskaintzen digu. Izan ere, lurralde mailako irakurketaz gain, gune soziolinguistiko, eskualde eta udalerrri mailako irakurketak ere ahalbidetzen ditu.

VI. Mapak azken urteotako joera nagusiak berretsi ditu. Euskaldunak gero eta gehiago dira EAEn, eta hazkundera, gainera, lurralde guztietan gertatu da. Hala ere, tentuz jarraitu beharrekoa da zenbait eremu euskaldunetan izan den euskaldunen jaitsiera.

Egungo gizartean aldaketa ugari eta sakonen lekuko izan gara azken urteotan, eta horiek eragina dute edozein hizkuntzaren bilakaeran, baita euskararenean ere. Aldaketa azpimarragarrietako bat euskaldunen ezaugarrietan gertatu da. Gaur egun, duela 30 urte ez bezala, euskaldun asko gune erdaldunetan bizi dira eta etxetik kanpo ikasi dute euskara.


Bestalde, euskara biziberritzeko bide horretan, azpimarratzekoa da emakumeak eta belaunaldi berriak, gazteak, izaten ari diren protagonismoa. Emakumeen jokabide aktiboa nabarmena da, eta argi azaltzen da, esaterako, 35 eta 54 urte bitarteko emakume euskaldunen nagusitasunean, bereziki eremu erdaldunetan.

Gazteei dagokienez, oso kontuan izan behar da nagusiki haiek ari direla gizartea euskalduntzen, eta funtsezkoa dela euskara normaltasunez erabiltzeko baliabide nahikoa jartzea haien esku, gizartearen gainerako kideak ahaztu gabe, noski.

Adierazitakoak eta beste hainbat datu esanguratsu plazaratzen ditu euskararen egoera ulertzeko eta hizkuntzaren geroa planifikatzeko lanabes lagungarria den VI. Mapa Soziolinguistikoak.

# 2016

## VI. Mapa Soziolinguistikoa







## FITXA TEKNIKOA ETA METODOLOGIA

**Izena:** VI. Mapa Soziolinguistikoa 2016

**Eragiketaren kodea:** 020702 (Euskal Estatistika Plana)

**Egilea:** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Unibertsoa:** EAEko 5 urte edo gehiagoko biztanleak

**Maiztasuna:** 5 urtero

**Datuen iturria:** Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika 2016

Iturriaren ezaugarri teknikoak honako hauek dira:

- Erakunde arduraduna: EUSTAT
- Eragiketaren kodea: 10123 (Euskal Estatistika Plana)
- Beste erakunde partaide batzuk (Administrazioko fitxategiak hornitzen dituzten administrazioak):
  - Eusko Jaurlaritzako sailak:
    - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
    - Ogasun eta Herri Administrazio Saila Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE)
    - Kultura Saila Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)
    - Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
    - Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
    - Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
  - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra (GSDO)
  - Herri Administrazioen Ministerioa: Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitate Orokorra (MUFACE)
  - Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (EEZP/SEPE)
  - Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)
  - Foru aldundiak: Katastro Zuzendaritza eta Ogasun eta Finantza sailak
- Maiztasuna: 10 urtero
- Eragiketa-mota: zentsua

- Metodologia: mistoa, hau da, honako iturri hauek konbinatuz osatu da Zentsua:
  - EUSTATEko Biztanleen Erregistroa
  - Administrazio-jatorriko informazio estatistikoa
  - INEren Biztanleriaren Zentsua (inkesta)
- Metodologia, datuen jatorriari jarraiki: EUSTATEko Biztanleriaren Erregistroa aintzat hartzen da eta administrazio-iturri ezberdinak bateratzen dira.

## 1. BIZTANLERIA

### 1.1. Biztanleriaren bilakaera eta egitura

2019ko Biztanleriaren Udal Erroldaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak 2.188.017 biztanle ditu. 2011ko datuarekin konparatuz, biztanleriak hazkunde txiki bat izan du (ia 14.000 pertsona). Eraitza demografiko positiboa da, bai EAE osoan, eta baita Araban eta Gipuzkoan ere. Bizkaiak, aldiz, ia 10.000 biztanle galdu ditu.

Biztanleriak mende honen hasieratik hona izan duen hazkunde txiki horrek inflexio-puntua suposatu du populazioaren bilakaerari dagokionez. 1981etik 2001era arte biztanleriak behera egin zuen Bizkaian eta Gipuzkoan. Araban, ordea, biztanleriak gora egin du hamarkada guztietan, baina hazkunderik handiena 2001etik 2011ra artekoa izan zen.

**1. taula.** Biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2019

	1981	1991	2001	2011	2019
<b>EAE</b>	2.141.809	2.104.041	2.079.210	2.174.033	2.188.017
<b>Araba</b>	257.850	272.447	284.596	318.730	327.967
<b>Bizkaia</b>	1.189.278	1.155.106	1.122.180	1.152.406	1.142.853
<b>Gipuzkoa</b>	694.681	676.488	672.434	702.897	717.197

*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Udal Erroldaren Estatistikak.*

EAEko biztanleria osoaren %51,5 emakumezkoak dira eta %48,5 gizonezkoak. 0-19 urte bitartekoen artean, gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino, eta 20-64 urte bitartekoen artean ez dago ia alderik bi sexuen banaketari dagokionez. Nabarmentzekoa da 65 urte edo gehiagokoen artean, aldiz, askoz gehiago direla emakumezkoak gizonezkoak baino (%57,6 versus %42,4).

Kontuan hartu behar da emakumezkoen bizi-itxaropena 86,3 urtekoa dela, eta gizonezkoena, ordea, 80,4koa.

**2. taula.** Biztanleriaren banaketa adin-talde nagusien eta sexuaren arabera. EAE, 2019

Adina	Pertsonak			Ehunekoak		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
<b>Guztira</b>	2.188.017	1.061.597	1.126.420	100	100	100
<b>0-19</b>	401.766	206.528	195.238	18,4	19,5	17,3
<b>20-64</b>	1.299.513	648.463	651.050	59,4	61,1	57,8
<b>≥ 65</b>	<b>486.738</b>	<b>206.606</b>	<b>280.132</b>	<b>22,3</b>	<b>19,5</b>	<b>24,9</b>

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren Udal Erroldaren Estatistika.

2001etik hona biztanleria hazi egin den arren, ez da eten zahartze-prozesua, apur bat moteldu bada ere.

Adinari dagokionez, 1981-2019 epean, 65 urtetik gorako populazioaren ehunekoak 13 puntuko igoera izan du. 1981ean EAEn %9,2 ziren 65 urte edo gehiagokoak, 2019an, aldiz, %22,3 dira. Europako ehunekorik altuenetakoa da. Italiak baino ez du gainditzen ehuneko hori (%22,6).

Era berean, 20 urtetik beherakoaren ehunekoa ia erdira jaitsi da. Horrela, 20 urte baino gutxiago zutenak 1981ean biztanleriaren %34,2 ziren; 2011n, aldiz, %18,4 dira. Gaur egun, 65 urtetik gorakoak 20 urtetik beherakoak baino gehiago dira EAEn (%22,3 versus %18,4).

**3. taula.** Biztanleriaren bilakaera adin-talde nagusien arabera. EAE, 1981-2019 (%)

Adina	1981	1991	2001	2011	2019
≥ 65	9,2	12,6	18,0	19,5	22,3
20-64	56,6	61,9	64,5	63,1	59,4
0-19	34,2	25,5	17,5	17,4	18,4
<b>Guztira</b>	<b>2.141.809</b>	<b>2.104.041</b>	<b>2.079.210</b>	<b>2.174.033</b>	<b>2.188.017</b>


Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Udal Erroldaren Estatistikak.

Bestalde, aipagarria da azken urte hauetan 85 urte edo gehiagokoek izan duten hazkundera. Izan ere, 38 urtean 85 urte edo gehiagokoen ehunekoa zortzitik biderkatu da, eta 1981eko %0,5 izatetik biztanleriaren %3,9 izatera iritsi da 2019an.

Igoera hori ez dago modu berean banatuta emakumeen eta gizonen artean. Horrela, 85 urte edo gehiago dituzten emakumeak EAEko emakume guztien %5,2 dira, baina gizonen kasuan %2,5era jaisten da ehunekoa.

Populazioaren piramidearen egitura antzekoa da EAEn eta hiru lurraldeetan, nahiz eta Araban nagusien adin-taldeetan ehunekoa Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa baino txikiagoa izan eta gazteena zertxobait handiagoa.

### 1. irudia. Biztanleriaren piramidearen bilakaera. EAE, 1981-2019 (%)



**Iturria:** Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

EAEko biztanleriaren %80 hiriguneetan bizi da, 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerriaren batean. Halaber, populazioaren %35,2 hiru hiriburu-tako batean bizi da.

Arabako populazioak kontzentrazio eta polarizazio-tasa handia du. Izan ere, bertako biztanleriaren hiru laurdena Gasteizen bizi da (%75). Gainerako 50 udalerrietatik Laudio, Amurrio eta Agurain dira 5.000 biztanletik gora dituzten bakarrak (lehenengo biek 10.000tik gora dituzte). Arabako biztanleen %15 udalerririk bizi da.

Bizkaitarrak ere hiriburuaren inguruan kontzentratuta bizi dira, baina polarizazio-tasa kasu honetan ez da Araban bezain handia. Bizkaiko biztanleriaren %70ek 20.000 biztanletik gorako 11 udalerrietako bat du bizileku. Udalerririk guztiak

Bilbo Handian daude kokatuta, Durango izan ezik. Beste %20 pasatxo 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerriren batean bizi da, eta gainerako % 10 herri txikiagoetan.

Azkenik, Gipuzkoako biztanleria beste lurraldeetan baino banatuago bizi da. 20.000 biztanletik gora dituzten zazpi udalerrietakoren batean bizi da gipuzkoarren erdia baino gehiago (% 52,2). Horrezaz gain, 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan % 39,2 bizi da, eta azkenik, % 8,6 udalerrri txikietan.

**4. taula.** Biztanleriaren banaketa udalerrien tamainaren arabera. EAE, 2019 (%)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Txikiak (&lt; 5.000 biztanle)</b>	14,6	10,3	8,6
<b>Ertainak (5.000 - 20.000 biztanle)</b>	10,4	20,3	39,2
<b>Handiak (&gt; 20.000 biztanle)</b>	75	69,4	52,2
<b>Guztira</b>	<b>327.967</b>	<b>1.142.853</b>	<b>717.197</b>

*Iturria: Biztanleriaren Udal Erroldaren Estatistika.*

Hiriburuei dagokienez, Gasteiz izan da azken 38 urteotan biztanleriaren hazkunde handiena izan duena (% 30). Izan ere, 56.000 pertsona baino gehiagoko hazkundera izan du. Donostiako biztanleriak ere gora egin du, baina neurri txikiagoan (% 7): 12.000 pertsonako saldo positiboa du. Bilbok, aldiz, % 13ko galera izan du, 1981an baino 50.000 pertsona gutxiago bizi baita bertan 2019an.

**5. taula.** Hiriburuetakoko biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2019

	1981	1991	2001	2011	2019
<b>Bilbo</b>	393.821	369.839	349.972	350.558	343.430
<b>Donostia</b>	169.228	171.439	178.377	181.788	181.652
<b>Gasteiz</b>	189.533	206.116	216.852	239.949	246.149

*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Udal Erroldaren Estatistikak.*


## 1.2. Atzerriko immigrazioaren fenomenoa

XXI. mendearen hasieratik hona, atzerrian jaiotako biztanleria bostetik biderkatu da. Atzerrian jaiotako biztanleriaren artean gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino eta bertan jaiotakoak baino gazteagoak dira, ia %80k berrogeita hamar urte baino gutxiago ditu.

EAEko atzerriko immigrazioaren fenomenoaz aztertzeko, azken hemeretzi urteak aztertuko ditugu (2001-2019). Epe horretan atzerrian jaiotakoen kopuruak hazkunde handia izan du.

2019ko Udal Erroldaren Estatistikaren arabera, EAEko biztanleen %10,2 atzerrian jaiotakoa da. 2001ean, aldiz, %2,2 ziren atzerrian jaiotakoak. Horrek esan nahi du, epe horretan, atzerriko biztanleria bostetik biderkatu dela (46.540 versus 223.033).

**2. irudia.** Atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera. EAE, 2001-2019 (%)




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren Udal Erroldaren Estatistika.

Lurraldeei dagokienez, Araban atzerrian jaiotako populazioaren ehunekoa handiagoa da (%12,3), Bizkaian eta Gipuzkoan baino (%9,6 eta %10,3, hurrenez hurren).



### 3. irudia. Atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 2001-2019 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren Udal Erroldaren Estatistika.

Eskualdeetako ehunekoak aztertuta, aldea dago batetik bestera. EAEn atzerrian jaiotako ehuneko handiena duten eskualdeak Arabako Lautada (% 13,3) eta Gipuzkoako Bidasoa Beherea (% 12,7) dira. Gutxien, berriz, Gorbeialdean eta Kantauri Arabarrean bizi dira (% 7,3 eta % 7,1 hurrenez hurren).

Udalerrietako datuei erreparatuz, aldeak are handiagoak dira. Bost udalerrri Euskal Autonomia Erkidegoak duen ehunekoaren oso gainetik daude, hau da, % 17 baino gehiago (Baños de Ebro, Navaridas, Berriatua, Ordizia eta Lantziego). Beste lau udalerritan, aldiz, atzerritarren ehunekoa ez da % 2ra iristen (Abaltzisketa, Mutiloa, Aduna eta Orexa).


Atzerrian jaiotako EAeko biztanleei dagokionez, gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino: % 55,6 emakumezkoak eta % 44,4 gizonezkoak.

Bi sexuen arteko alderik handiena 25-49 urte bitartekoek dute; 61.000 baitira emakumezkoak, eta 45.201 gizonezkoak.

Hiru lurraldeetan gizonezkoen eta emakumezkoen ehunekoak oso antzekoak badira ere, Bizkaian bien arteko aldea apur bat handiagoa da: % 56,2 emakumezkoak eta % 43,8 gizonezkoak.

Atzerrian jaiotako biztanleriaren ezaugarri nagusienetako bat islatzen da piramidean. Biztanleria gaztea da, bertan jaiotako biztanleriarekin konparatuz gero. Izan ere, atzerrian jaiotako biztanleen ia %80 berrogeita hamar urtez azpikoa da.

#### 4. irudia. Atzerrian jaiotako biztanleriaren piramidea. EAE, 2019 (%)



Adin-talde jakin batzuetan, bereziki 20 eta 34 urte bitartekoetan, atzerrian jaiotako populazioak pisu handia du biztanleria osoarekiko (%20). 65 urtetik gorako adin-taldeetan, berriz, atzerriko biztanleek ehuneko txikia osatzen dute (%2).


Araban dago atzerrian jaiotako biztanleriaren ehunekorik handiena 20 eta 34 urte bitartekoen artean (%23). Bizkaian eta Gipuzkoan atzerrian jaiotako biztanleriaren

ehunekoa apur bat txikiagoa da adin-talde horretan (%18 eta %20 hurrenez hurren).

Jatorriari erreparatuta, gaur egun, Amerikan jaiotakoak biztanleria atzerritarren erdia baino gehiago dira EAEn (%54,9), batez ere Hego eta Erdialdeko Amerikan jaiotakoak (%52,7). Horrezaz gain, Europatik datoz %20,5.

Afrikarrei dagokienez, atzerrian jaiotako populazioaren hirugarren postuan daude (%18,3).

Asian jaiotakoek ehuneko txikia osatzen dute, nahiz eta gero eta gehiago diren (%6), eta are ehuneko txikiagoa Ozeanitik datozenek (%0,2).




Lurraldeetan bada alderik atzerritarren jatorriaren ehunekoari dagokionez. Araban ere Amerikan jaiotakoak dira nagusi (%49,4), baina Bizkaian eta Gipuzkoan baino gutxiago, eta Afrikan jaiotakoek Europan jaiotakoek baino askoz ehuneko handiagoa dute (%26,8 versus %15,8).

Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, amerikarrak ere nagusi dira alde handiz (% 57,9 eta % 53,6 hurrenez hurren), baina europarrak afrikarrak baino gehiago dira: Bizkaian % 20 versus % 15,8 eta Gipuzkoan % 22,8 versus % 17,1.

### 1.3. Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak

2017/2018 ikasturtean EAEn 375.318 ikasle daude matrikulatuta araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioan (kanpoan utzi dira Helduen Hezkuntza eta Oinarrizko Curriculum Diseinua HLKPko ikasleak). Horietatik % 66,8, hau da, 250.841 ikasle, D ereduan daude matrikulatuta. B ereduan, berriz, 70.237 ikasle (% 18,7), A ereduan 51.957 (% 13,8) eta X ereduan 2.283 (% 0,6).

**6. irudia.** Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak. EAE, 2017/18 (%)



Iturria: EUSTAT.

Eredu bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua ikasketa mailaren arabera aldatu egiten da. Ikasketa mailetan zenbat eta gorago joan, orduan eta ikasle gutxiago daude D ereduan matrikulatuta.

D ereduan matrikulatutako ikasle gehien Haur Hezkuntzan daude, %79,4k ikasten baitu eredu honetan. B ereduan %17,1 dago matrikulatua, A ereduan %3 eta X ereduan, berriz, %0,6.

Lehen Hezkuntza ere, D ereduan ikasten dutenak dira gehiengoak alde handiz: %73,8. B ereduan ikasleen %21,3k ikasten du, A ereduan %4,1ek eta X ereduan %0,8k.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleen %67 D ereduan dago matrikulatua, B ereduan %24,2, A ereduan %8,1 eta X ereduan %0,6.

Batxilergoan ere, gehiengoak D ereduan ikasten du (%62,6), eta A ereduan matrikulatutako ikasleak herena dira (%32,2). B ereduan matrikulatutakoak, aldiz, %4,4 dira eta %0,7 X eredukoak.

Lanbide Heziketako ikasleen datuak bestelakoak dira. Izan ere, hirutik bik A ereduan ikasten du (%66,3). D ereduan matrikulatutakoak %20,2 dira, eta B ereduan daudenak %13,6.

**6. taula.** Irakaskuntza ez unibertsitarioko ikasleak hizkuntza-ereduaren arabera. EAE, 2017/18


	Guztira	EAE				EAE (%)			
		A	B	D	X	A	B	D	X
<b>Haur Hezkuntza</b>	<b>89.091</b>	2.650	15.195	70.752	494	3,0	17,1	79,4	0,6
<b>Lehen Hezkuntza</b>	<b>131.043</b>	5.436	27.850	96.718	1.039	4,1	21,3	73,8	0,8
<b>DBH</b>	<b>83.588</b>	6.770	20.249	56.029	540	8,1	24,2	67,0	0,6
<b>Batxilergoa</b>	<b>30.398</b>	9.802	1.351	19.035	210	32,2	4,4	62,6	0,7
<b>Lanbide Heziketa</b>	<b>41.198</b>	27.299	5.592	8.307	0	66,3	13,6	20,2	0,0
<b>Guztira</b>	<b>375.318</b>	<b>51.957</b>	<b>70.237</b>	<b>250.841</b>	<b>2.283</b>	<b>13,8</b>	<b>18,7</b>	<b>66,8</b>	<b>0,6</b>

Iturria: EUSTAT.

Erkidegoko hiru lurraldeetako datuak konparatuz gero, desberdintasunak antzematen dira batetik bestera.

Gipuzkoak du D ereduan matrikulatutako ikasleen ehunekorik handiena, ikasleen %82,2k ikasten baitu eredu honetan. B ereduan %9,4 dago matrikulatua, eta A ereduan %8,4. Bizkaian D ereduan ikasten ari dira ikasleen %61,5, B ereduan %21,6, A ereduan %15,7 eta gainerako %2 X ereduan. Arabarren kasuan, ikasleen erdia baino gehiago D ereduan matrikulatuta badago ere (%50,7), B ereduan ikasten du ikasleen %29,8k, eta A ereduan %19,6k.


### 7. irudia. Hizkuntza-ereduak lurraldearen arabera. EAE, 2017/18 (%)



Iturria: EUSTAT.

Hizkuntza-ereduak martxan jarri zirenetik asko aldatu da egoera. 1983/1984 ikasturtean gehiengoa A ereduan matrikulatzen zen (%64), eta X ereduan, beste %13,8; orain, aldiz, %13,2 dira A eta %0,6 dira hurrenez hurren A eta X ereduetan matrikulatutako ikasleak. Kontrakoa gertatu da D ereduarekin, hazkunde handia izan baitu. Ikasleen %14,2 ziren 1983an, eta %66,8 dira egun. B ereduko matrikulazio kopuruak ere gora egin du, neurri txikiagoan bada ere, %8,1 izatetik %18,7 izatera pasa da.

**8. irudia.** Hizkuntza-ereduen bilakaera. EAE, 1983/84-2017/18 (%)



Iturria: EUSTAT.

**7. taula.** Irakaskuntza ez unibertsitarioko ikasleen hizkuntza-ereduen bilakaera. EAE, 1983/84-2017/18

	Guztira	EAE				EAE (%)			
		A	B	D	X	A	B	D	X
<b>1983/84</b>	<b>524.448</b>	335.603	42.401	74.342	72.102	64,0	8,1	14,2	13,8
<b>1988/89</b>	<b>484.437</b>	317.242	69.701	93.367	4.127	65,5	14,4	19,3	0,9
<b>1993/94</b>	<b>405.405</b>	223.324	70.767	107.135	4.179	55,1	17,5	26,4	1,0
<b>1998/99</b>	<b>327.150</b>	133.492	66.047	124.729	2.882	40,8	20,2	38,1	0,9
<b>2003/04</b>	<b>301.497</b>	85.865	67.967	145.783	1.882	28,5	22,5	48,4	0,6
<b>2008/09</b>	<b>325.542</b>	60.732	75.274	187.543	1.993	18,7	23,1	57,6	0,6
<b>2013/14</b>	<b>359.130</b>	55.332	70.721	231.038	2.039	15,4	19,7	64,3	0,6
<b>2017/18</b>	<b>375.318</b>	51.957	70.237	250.841	2.283	13,8	18,7	66,8	0,6

Iturria: EUSTAT.

Ikasketa maila guztietan D ereduari matrikulatutako ikasleek kopuruak gora egin du, neurri ezberdinetan bada ere. 1996/97 ikasturteetik hona ereduak maila bakoitzean izandako bilakaerari erreparatuko diogu jarraian.

Haur Hezkuntzan, 1996/97 ikasturtean D ereduari matrikulatuta zegoen ikasleek gehiengoa (% 51,7). Azken urteetan igoera handia izan du D ereduak, orain % 79,4 baitira. A ereduak behera egin du (% 19,1etik % 3ra). B ereduak ere behera egin du (% 28,4tik % 17,1era).


Lehen Hezkuntzan ere D ereduari matrikulatuak gehiago ziren (% 38,6) A ereduak baino (% 31,3). Bi datuen arteko aldea asko handitu da azken urteetan (% 73,8 D ereduari eta % 4,1 A ereduari). B ereduari ere jaitsi egin da (% 29,3tik % 21,3ra).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 1996/97 ikasturtean gehiago ziren A ereduak ikasleak (% 42,8), baina zifra hori % 8,1era jaitsi da 2017/18 ikasturtean. D ereduari % 33,3tik % 67ra igo da, eta B ereduaren ehunekoa ez da askorik aldatu (% 23,3 versus % 24,2).

DBHn bezala, Batxilergoan ere gehiago ziren A ereduak ikasleak 1996/97an (% 64,8). Orain, berriz, % 32,2 dira. D ereduak % 43,4tik % 62,6ra igo dira, eta B ereduak % 1,5etik % 4,4ra.

Lanbide Heziketan, gehiengoak oraindik ere A ereduari ikasten badu ere (% 82,7 1996/97an eta % 66,3 2017/18an), D ereduari matrikulazioa igotzen joan da (% 12,3tik % 20,2ra), baina gehien B ereduari igo da (% 3tik % 13,6ra).

### 9. irudia. Hizkuntza-ereduen bilakaera ikasketa mailaren arabera. EAE, 1996/97-2017/18 (%)




Iturria: EUSTAT.



## 1.4. Helduen euskalduntzea

2018/19 ikasturtean 36.062 ikasle matrikulatu dira EAEn euskara ikasteko, maila desberdinetan. Ikasle gehien C1 eta B2 mailan matrikulatu dira (% 28,2 eta % 25,8 hurrenez hurren). B1ean % 14,7 matrikulatu dira, A2n % 11,6 eta A1ean % 16,1. Matrikulaziorik txikiena C2 eta Z mailetan izan da (% 2,3 eta % 1,4 hurrenez hurren). Z mailan sartzen dira Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren esparrutik kanpo dauden ikastaroak, esate baterako, Euskaltzaindiaren azken arauak ezagutzeko ikastaroak, hitanoaren gainekoak, euskalkia lantzeko, etab. Maila hau lehenago Goi-maila deitzen zen haren parekoa da.

10. irudia. Helduen euskalduntzea mailaren arabera. EAE, 2018/19 (%)



Iturria: HABE eta EAS.

Lurraldeei erreparatuta, Araban 5.412 ikasle matrikulatu dira, Bizkaian 19.240 eta Gipuzkoan 11.419.

Bizkaian eta Gipuzkoan ikasle gehien C1 mailan matrikulatu dira eta Araban B2 mailan. Ikasleen erdia baino gehiago bi maila horietan matrikulatu dira hiru lurraldeetan.

**8. taula.** Helduen euskalduntzea mailaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2018/19

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Guztira</b>	<b>36.062</b>	<b>5.412</b>	<b>19.240</b>	<b>11.410</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>
<b>A1</b>	5.787	824	2.824	2.139	% 16,1	% 15,2	% 14,7	% 18,8
<b>A2</b>	4.185	737	2.133	1.315	% 11,6	% 13,6	% 11,1	% 11,5
<b>B1</b>	5.298	917	2.814	1.567	% 14,7	% 16,9	% 14,6	% 13,7
<b>B2</b>	9.313	1.416	5.348	2.549	% 25,8	% 26,2	% 27,8	% 22,3
<b>C1</b>	10.155	1.297	5.568	3.290	% 28,2	% 24,0	% 28,9	% 28,8
<b>C2</b>	815	86	259	470	% 2,3	% 1,6	% 1,4	% 4,1
<b>Z</b>	509	135	294	80	% 1,4	% 2,5	% 1,5	% 0,7

Iturria: *HABE eta EAS.*

Azken hemeretzi urteotako datuei erreparatuz, 2005/2006 eta 2009/2010 ikasturteak izan dira ikasle gehien izan dituzten ikasturteak, 40.000 ikasletik gora izan baitituzte. 2010/2011 ikasturtetik aurrera, ordea, ikasleen kopurua jaisten joan da eta ikasle gutxien 2013/2014 ikasturtean izan da (32.637 ikasle). Ikasturte horretatik hasita, apurka-apurka ikasleen kopurua berriro igoz joan da (36.062 ikasle 2018/19 ikasturtean).

Bestalde, ikastaroak ere aldatu egin dira. 2007/08 ikasturtera arte ez zegoen ez Z mailako, ezta C2ko ikastarorik 2005/06 ikasturtera arte. Azken ikasturtean 815 ikaslek eman dute izena C2 mailan eta 509k Z mailan.


Era berean, azpimarratzekoa da mende 2000/01 ikasturtean B1 zela mailarik jendetsuena, baina hurrengo ikasturteetan B2 eta C1 mailek izan zuten ikasle gehien matrikulatuta eta gaur egun ere hala gertatzen da.

**9. taula.** Helduen euskalduntzearen bilakaera. EAE, 2000/01 -2018/19

	<b>Guztira</b>	<b>A1</b>	<b>A2</b>	<b>B1</b>	<b>B2</b>	<b>C1</b>	<b>C2</b>	<b>Z</b>
<b>2000/2001</b>	<b>37.709</b>	4.508	6.558	9.843	8.422	8.378	–	–
<b>2001/2002</b>	<b>34.500</b>	3.876	5.182	8.499	8.370	8.573	–	–
<b>2002/2003</b>	<b>33.642</b>	3.819	5.129	7.832	7.675	9.187	–	–
<b>2003/2004</b>	<b>35.791</b>	5.259	5.684	8.459	7.627	8.762	–	–
<b>2004/2005</b>	<b>38.388</b>	5.768	6.194	8.935	8.768	8.723	–	–
<b>2005/2006</b>	<b>40.068</b>	5.677	6.182	9.523	9.262	9.314	110	–
<b>2006/2007</b>	<b>37.563</b>	4.595	5.599	8.948	9.000	9.269	152	–
<b>2007/2008</b>	<b>37.022</b>	4.841	5.065	8.523	9.183	8.295	124	991
<b>2008/2009</b>	<b>39.464</b>	5.236	5.275	8.687	9.799	9.465	231	771
<b>2009/2010</b>	<b>40.192</b>	4.906	5.047	8.639	10.165	10.474	397	564
<b>2010/2011</b>	<b>37.929</b>	3.880	4.624	7.985	9.932	10.344	510	654
<b>2011/2012</b>	<b>35.533</b>	4.013	4.242	7.460	9.142	9.240	644	792
<b>2012/2013</b>	<b>32.737</b>	3.694	4.033	6.688	8.184	8.597	681	860
<b>2013/2014</b>	<b>32.637</b>	4.127	3.969	6.653	8.017	8.634	605	632
<b>2014/2015</b>	<b>33.976</b>	4.080	4.253	6.584	8.257	9.365	705	732
<b>2015/2016</b>	<b>35.283</b>	5.412	4.670	5.631	7.943	10.179	721	727
<b>2016/2017</b>	<b>35.094</b>	5.259	4.477	5.948	7.813	10.337	688	572
<b>2017/2018</b>	<b>35.139</b>	5.081	4.311	5.548	8.899	10.229	691	380
<b>2018/2019</b>	<b>36.062</b>	5.787	4.185	5.298	9.313	10.155	815	509


Iturria: *HABE eta EAS.*

Generoari erreparatuz, 2018/19 ikasturtean euskara ikasten edo hobetzen aritu direnen helduen %66,6 emakumezkoak dira eta %33,4 gizonezkoak. Aldea nabarmena da eta gorabeherak gorabehera, horrela gertatu da azken hemeretzi urteotan.

**11. irudia.** Helduen euskalduntzearen bilakaera sexuaren arabera. EAE, 2001/02-2018/19 (%)


Iturria: HABE eta EAS.

Emakumezko eta gizonezkoen arteko aldea helduen euskalduntzean ez da berdina adin talde guztietan. Alderik txikiena 65 urte edo gehiagokoek dute (%49,1 versus %50,9). Alderik handiena, berriz, 36-55 urte bitartekoek (%70 edo gehiago dira emakumezkoak). Gazteagoen artean ere aldea handia da 20-35 urte bitartekoaren artean, hirutik bi baitira emakumezkoak.


**12. irudia.** Helduen euskalduntzea sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2018/19 (%)


Iturria: HABE eta EAS.

Adinari dagokionez, euskara ikasten ari direnetatik, adin talderik jendetsuena 36-45 urte bitartekoena da (%27,7) eta ondoren 16-25 urte bitartekoena (%21,4). Ehunekorik txikiena 56 urte edo gehiagokoek dute (% 10,7), baina horiek asko hazi dira azken urteotan, 2000/01 ikasturtean %2,4 baino ez ziren eta.

Igoerarik handiena, aldiz, 46-55 urte bitartekoek izan dute: %8,7 ziren 2000/01 ikasturtean, eta %21 dira 2018/19 ikasturtean.

**13. irudia.** Helduen euskalduntzea adinaren arabera. EAE, 2018/19 (%)



Iturria: *HABE* eta *EAS*.




## 2. HIZKUNTZA-GAITASUNA

### 2.1. Hizkuntza-gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoan

2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren arabera, bost urte edo gehiagoko 2.061.646 pertsona bizi dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik, 846.337 pertsona (%41) euskaldunak<sup>1</sup> dira. Beste 308.272 pertsona (%15) euskaldun hartzaileak<sup>2</sup> dira. Azkenik, 907.037 pertsona (%44) erdaldunak<sup>3</sup> dira.

14. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

Atzera begiratzuz gero, ikusten da euskaldunen ehunekoak nabarmen egin duela gora azken 30 urteotan, 16,3 puntuko hazkundea izan baitu ehunekoetan. Euskaldunak %24,7 ziren 1986an eta %41 dira 2016an.


<sup>1</sup> Euskalduna gai da euskaraz ondo hitz egiteko.

<sup>2</sup> Euskaldun hartzailea:

- gai da euskara nekez edo ondo ulertzeko eta nekez hitz egiteko
- gai da ondo ulertzeko, nahiz eta ez izan gai ondo edo nekez hitz egiteko.

<sup>3</sup> Erdalduna ez da gai euskara ez nekez ez ondo ulertzeko, ezta hitz egiteko ere.

### 15. irudia. Euskaldunen bilakaera. EAE, 1986-2016




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

2016an, 30 urte lehenago baino 349.000 pertsona gehiago da gai euskaraz ondo hitz egiteko.

Euskaldun hartzaileak, gorabeherak gorabehera, ez dira ia hazi; % 14,7 ziren 1986an, eta % 15 dira 2016an.

Erdaldunek, aldiz, behera egin dute: % 60,6 ziren 1986an eta % 44 aldiz, 2016an. 30 urtetan ia 16 puntuko beherakada izan dute, duela 30 urte baino 315.000 gutxiago baitira.

### 16. irudia. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAE, 1986-2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.




## 2.2. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera

2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikako datuen arabera, 5 urte edo gehiagoko 304.652 arabarretatik 83.556 euskaldunak dira (% 27,4).

Bizkaian, 1.083.452 pertsonetatik 382.547 euskaldunak dira (% 35,3).

Gipuzkoak du euskaldunen kopururik eta ehunekorik altuena. Izan ere, 673.542 gipuzkoarretatik, 380.234 euskaldunak dira (% 56,5).

17. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



**Oharra:** zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

**10. taula.** Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2016


	GUZTIRA	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
<b>Araba</b>	304.652	83.556	47.567	173.529
<b>Bizkaia</b>	1.083.452	382.547	175.013	525.892
<b>Gipuzkoa</b>	673.542	380.234	85.692	207.616
<b>EAE</b>	2.061.646	846.337	308.272	907.037

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Bilakaerari dagokionez, lurralde guztietan egin dute gora euskaldunek, baina hazkunderik handiena Arabak izan du. Araban biztanleriaren % 6,7 zen euskalduna 1986an. Hortaz, ia 21 puntuko hazkundera izan du.

Bizkaian % 17,6 ziren euskaldunak 1986an, eta ia 18 puntuko hazkundera izan du 30 urtean.

Azkenik, 1986an ere Gipuzkoan zegoen euskaldunen ehunekorik handiena alde handiz (% 43,7), eta igoera txikiagoa izan arren, ia 13 puntuko hazkundera izan du.

**18. irudia.** Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1986-2016 (%)

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.


### 2.3. Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera

Arabako eskualderik euskaldunenak Gorbeialdea eta Aiaraldea dira (euskaldunak %45,9 eta %32,9 hurrenez hurren) eta erdaldunenak, aldiz, Añana eta Arabako Errioxa (euskaldunak %18,8 eta %21,6 hurrenez hurren).

Bizkaiari dagokionez, eskualderik euskaldunenak Lea Artibai eta Busturialdea dira (euskaldunak %80,5 eta %73,1 hurrenez hurren) eta erdaldunenak, aldiz, Enkarterri eta Bilbo Handia (euskaldunak %27,1 eta %28,7 hurrenez hurren).

Azkenik, Gipuzkoako eskualderik euskaldunenak Urola Kosta eta Tolosaldea dira (euskaldunak %77,5 eta %73,3 hurrenez hurren) eta erdaldunenak, aldiz, Bidasoa Beherea eta Donostialdea (euskaldunak %44,7 eta %48,2 hurrenez hurren).

19. irudia. Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

Hogei eskualdeak bi multzotan bana daitezke, azken hiru hamarkadetan izan duten hizkuntza-gaitasunaren bilakaeraren arabera.

Lehen multzoa 30 urtetan euskaldunen ehunekoak 10-26 puntu bitarteko hazkundera izan duen hamaika eskualdek osatzen dute: Arabako sei eskualdeak, Bizkaiko Bilbo Handia, Durangaldea eta Enkarterri, eta Gipuzkoako Donostialdea eta Bidasoa Beherea. Eskualde hauetan guztietan euskaldunen ehunekoa % 20-50 ingurukoa da, eta oso ezaugarri desberdineko eskualdeak dira. Eskualde batzuek biztanleak galdu dituzte: Arabako Mendialdea eta Bilbo Handia, adibidez. Beste eskualde batzuetan, aldiz, biztanleriak hazkunde handia izan du. Honako hauek ditugu: Gorbeialdea, Añana eta Arabako Lautada. Era berean, multzo honetan biztanle gehien eta gutxien dituzten eskualdeak sartzen dira. Euskaldunen kopuruari erreparatzen badiogu, gainera, euskaldun gehien dituzten hiru lurraldeetako eskualdeak sartzen dira: Bilbo Handia, Donostialdea eta Arabako Lautada, hau da, hiru hiriburuak barne hartzen dituzten eskualdeak.

Bigarren multzoa euskaldunen ehunekoa duela 30 urte baino 1-9 puntu handiagoa duten sei eskualdek osatzen dute. Eskualde hauetan guztietan euskaldunak % 50-%75 bitartekoak dira: Tolosaldea (%73,3), Debagoiena (%65,5), Goierri (%59,4), Debabarrena (%61), Arratia Nerbioi (%57,4) eta Plentzia-Mungia (%52,1). Tamaina ertaineko eskualdeak dira, 20.000-70.000 biztanle artean dituztenak.

Hirugarren multzoa, aldiz, euskaldunen ehunekoa 1986. urteko bera edo zerbait txikiagoa duten hiru eskualdek osatzen dute. Eskualde hauek guztiak euskaldunen ehunekorik handiena dutenak dira. Honako hauek dira: Lea-Artibai (%81,2), Urola Kosta (%76) eta Busturialdea (%72). Eskualde hauek ere tamaina ertaineko eskualdeak dira.

**11. taula.** Euskaldunen bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1986-2016 (%)

	1986	2006	2016
Aiaraldea	8,8	26,6	32,9
Añana	3,0	22,2	21,6
Arabako Errioxa	2,3	17,9	23,9
Arabako Lautada	6,0	24,6	26,6
Arratia Nerbioi	51,1	55,5	57,4
Bidasoa Beherea	28,7	41,7	44,7
Bilbo Handia	9,2	24,4	28,7
Busturialdea	73,7	73,4	73,1
Debarrena	53,1	59,4	61,0
Debagoiena	56,8	64,4	65,5
Donostialdea	30,3	43,5	48,2
Durangaldea	39,2	48,9	51,2
Enkarterri	1,7	20,0	27,1
Goierri	51,8	60,9	62,6
Gorbeialdea	32,4	40,6	45,9
Lea-Artibai	84,8	84,2	80,5
Mendialdea	2,3	17,9	23,9
Plentzia-Mungia	50,4	49,7	52,1
Tolosaldea	67,0	71,0	73,3
Urola Kosta	78,0	78,0	77,5

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.


## 2.4. Hizkuntza-gaitasuna gune soziolinguistikoaren arabera

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lau gune soziolinguistiko ezarri zituen biztanleriaren euskaldunen ehunekoaren arabera. Honako hau da banaketa:


- Lehen gune soziolinguistikoa. Biztanleriaren %20 baino gutxiago da euskalduna.
- Bigarren gune soziolinguistikoa. Biztanleriaren %20-50 bitartean da euskalduna.
- Hirugarren gune soziolinguistikoa. Biztanleriaren %50-80 bitartean da euskalduna.
- Laugarren gune soziolinguistikoa. Biztanleriaren %80 edo gehiago da euskalduna.

## 20. irudia. Gune soziolinguistikoaren bilakaera. EAE, 1986-2016 (%)

1986



2016



- 4.a: euskaldunak  $\geq$  % 80
- 3.a: euskaldunak % 50-80
- 2.a: euskaldunak % 20-50
- 1.a: euskaldunak < % 20

Lehen gune soziolinguistikoa bost urte edo gehiagoko 11.367 pertsona bizi dira. EAEko biztanleria osoaren %0,6 hain zuzen. Horietatik 2.062 euskaldunak dira, hau da, euskaldun guztien %0,2. Araba eta Bizkaiko 18 udalerri daude gune soziolinguistiko honetan, eta Gipuzkoako bat ere ez. Udalerri txikiak dira, Enkarterri eta Arabako zenbait udalerri, hain zuzen. Oso biztanleria zahartua dute, oro har, ume gutxi eta heldu eta nagusi asko.

Bigarren gune soziolinguistikoko udalerrietan EAEko biztanleriaren ia hiru laurden bizi dira (% 72,2), 1.487.770 biztanle. Horietatik 471.736 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien erdia baino gehiago (% 55,7). Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 80 udalerririk osatzen dute bigarren gunea. Hiru hiriburuak eta 50.000 biztanletik gorako hiri guztiak gune soziolinguistiko honetan daude.

Hirugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan 496.134 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren laurdena (% 24,1). Horietatik 316.976 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien herena baino gehiago (% 37,5). Bizkaiko eta Gipuzkoako 90 udalerri daude hirugarren gune soziolinguistikoa. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerririk dira, Durango, Zarautz, Arrasate eta Eibar izan ezik. Industria indartsua duten udalerririk dira horietako asko, tamaina ertainekoak eta komunikazio-ardatz nagusietan kokatuak.

Laugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan 66.105 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren % 3,2. Horietatik 55.563 euskaldunak dira, hau da, euskaldun guztien % 6,6. Bizkaiko eta Gipuzkoako 62 udalerri eta Arabako udalerri bakarra (Aramaio) daude gune honetan. Udalerri txikiak dira gehienak, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte, Azpeitiak, Lekeitiok eta Mutrikuk izan ezik.

## 12. taula. Gune soziolinguistikoen bilakaera. EAE, 1986-2016

Guneak	Biztanleak (≥5 urte)		Euskaldunak (≥5 urte)		Udalerri kopurua	
	1986	2016	1986	2016	1986	2016
1. (<% 20)	1.133.086	11.637	84.912	2.062	79	18
2. (% 20-50)	554.780	1.487.770	178.110	471.736	36	80
3. (% 50-80)	243.409	496.134	158.217	316.976	51	90
4. (% >80)	84.988	66.105	76.047	55.563	85	63
<b>EAE</b>	2.016.263	2.061.646	497.286	846.337	251	251

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

Bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke gero eta udalerrri gutxiago dagoela lehen eta laugarren gunean. Azken urteotan, biztanle gehien dituzten udalerrri handi asko lehen gunetik bigarren gunera pasatu dira, hala nola, Bilbo, Gasteiz eta Getxo. Halaber, laugarren guneko zenbait udalerrri hirugarren gunera pasatu dira, hala nola, Markina-Xemein.

Bigarren gunea hazi da gehien 1986-2016 aldian, azken hamarkadan bereziki. Horren ondorioz, lehen gunearen pisua asko jaitsi da. Duela 30 urte, 79 udalerrri zeuden lehen gunean, orain baino lau aldiz gehiago (18 versus 82).

Hirugarren gunea ere hazi egin da euskaldunen zein udalerrrien kopuruari dagokionez. Gune honetan 51 udalerrri zeuden duela 30 urte, orain baino 35 udalerrri gutxiago.

Azkenik, laugarren gunean udalerrrien zein euskaldunen kopurua jaitsi egin da, hirugarren gunera pasatu baitira. Duela 30 urte, 85 udalerrri zeuden laugarren gunean, orain baino 22 gehiago.

## 2.5. Hizkuntza-gaitasuna udalerrriaren arabera


Gasteizek lurraldearen antzeko egoera du: %26,2 dira euskaldunak, Arabako euskaldunen ehunekoaren oso antzekoa (%27,4 Araban), hain zuzen. Bost urte edo gehiagoko 59.741 euskaldun bizi dira Gasteizen.

Bilbon bost urte edo gehiagoko 90.788 euskaldun bizi dira, eta zenbaki absolutuetan euskaldun gehien duen hiria da. Bilboko biztanleriaren %27,7 da euskalduna. Ehuneko hori Bizkaiko euskaldunen ehunekoaren azpitik dago, ia 8 puntuko aldearekin.

Bost urte edo gehiagoko 77.504 euskaldun ditu Donostiak. Donostiarren %45 euskaldunak dira, eta EAEn euskaldunen ehunekorik handiena duen hiriburua da. Ehuneko hori Gipuzkoako euskaldunen ehunekoaren batez bestekoaren azpitik dago, ia 12 puntuko aldearekin.



### 21. irudia. Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

1986 eta 2016 bitartean, EAEko 251 udalerritatik 142k irabaziak izan dituzte euskaldunen ehunekoan; 109k, aldiz, galerak.

Horrela, 46 udalerririk 20 puntutik gorako irabaziak izan dituzte euskaldunen ehunekoetan. Bizkaiko eta Arabako udalerririk dira, euskaldunen ehuneko txikia zutenak 1986an. Udalerririk handien artean aipatzekoak dira: Gasteiz, Laudio eta Amurrio Araban, eta Bilbo Handiko Santurtzi, Barakaldo eta Leioa Bizkaian.

Beste 67 udalerririk ere irabaziak izan dituzte euskaldunen ehunekoetan, 10-20 puntu bitartekoak, alegia. Hiru lurraldeetan daude, eta era askotako udalerririk dira. Udalerririk txikiak dira Arabakoak, 3.000 biztanle baino gutxiagokoak Oion izan ezik. Bizkaian aipatzekoak dira Bilbo, Getxo, Portugalete, Basauri, Sestao eta Durango. Azkenik, Gipuzkoan ere biztanle gehien dituzten udalerririk ditugu, hala nola, Donostia, Irun, Errenteria, Arrasate, Tolosa eta Hernani.

Azken 30 urteotan euskaldunen ehunekoan 10 puntuz azpiko irabaziak izan dituzten 29 udalerririk ditugu. Nahiko udalerririk euskaldunak dira: euskaldunen ehunekoa % 60 edo % 70 ingurukoa dutenak, oro har. Bizkaian aipatzekoak dira Gernika-Lumo eta Amorebieta. Gipuzkoan, aldiz, Zarautz, Eibar, Elgoibar, Hondarribia eta Bergara.

Bukatzeko, azken 30 urteotan euskaldunen ehunekoan galerak izan dituzte 109 udalerririk. Oso udalerririk euskaldunak ziren eta orain ere badira, oro har, batez ere, Gipuzkoan (euskaldunak % 70 - % 94 inguru). Bizkaian, ez denek baina zenbait udalerririk galera handia izan dute euskaldunen ehunekoan (euskaldunak % 55 - % 90


inguru). Horrela, 7 udalerritan euskaldunen ehunekoan jaitsiera 19 puntu baino handiagoa izan da. Honako hauek dira udalerrri horiek: Fruiz, Gamiz-Fika, Maruri-Jatabe, Gatika, Meñaka, Zeberio eta Arrieta.

## 2.6. Hizkuntza-gaitasuna adinaren eta sexuaren arabera

2016an, orain dela 30 urte ez bezala, euskaldunen ehunekorik handiena EAEko umeez, gazteek eta 40 urte baino gutxiagoko helduek dute. Era berean, adin-talde batzuetan, 35-54 urte bitartekoetan, eta batez ere Araban, emakumezkoek gizonezkoek baino euskaldunen ehuneko handiagoa dute.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera aztertzerakoan, aipagarria da 5-29 urte bitartean dutenen erdia baino gehiago euskaldunak direla EAEn. Era berean, adin horretako euskaldun hartzailen eta erdaldunen ehunekoa murriztuz doa adinean behera egin ahala, batez ere erdaldunena.

**22. irudia.** Euskaldunak adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

Horrezaz gain, 30-39 urte bitartekoen %40 baino gehiago euskaldunak dira. Euskaldun hartzaileek ere pisu handia dute adin hauetan, batez ere 35-49 urte bitartekoek (% 21-% 25 artean).

40-59 urte bitartekoen artean erdaldunek dute ehunekorik handiena, baina euskaldunek zein euskaldun hartzaileek ere pisu handia dute. Joera orokorrari jarraituz, adinean gora egin ahala, euskaldunen eta euskaldun hartzaileen ehunekoa murriztuz eta erdaldunen ehunekoa, aldiz, handituz doa.

Azkenik, 60 urtetik gorakoaren artean, erdaldunak %60 baino gehiago dira adin-talde guztietan, eta euskaldun hartzaileak gutxituz doaz adinean gora egin ahala. Euskaldunei dagokienez, 80 urtetik gorakoaren euskaldunen ehunekoa handixeagoa da (2 puntu inguruko aldea) aurreko adin taldeetako baino. Gainerako adin taldeetan euskaldunen ehunekoa %22 edo %23koa da. Dena dela, ehunekoetan dauden aldeak ez dira oso handiak, oro har. Alde handiena euskaldun hartzaileen ehunekoetan dago. Zenbat eta nagusiago, orduan eta euskaldun hartzaile gutxiago.

13. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2016

	EAE			
	Biztanleak guztira	Euskaldunak (%)	Euskaldun hartzaileak (%)	Erdaldunak (%)
5-9	106.547	84,4	13,8	1,8
10-14	100.447	87,3	10,0	2,7
15-19	92.108	82,7	9,8	7,5
20-24	90.665	69,2	11,4	19,4
25-29	104.643	55,4	14,6	30,0
30-34	132.381	46,4	18,9	34,7
35-39	171.777	40,1	22,8	37,1
40-44	181.112	34,7	24,5	40,8
45-49	172.096	30,1	21,3	48,7
50-54	168.655	29,0	17,3	53,8
55-59	157.293	26,5	15,0	58,6
60-64	133.802	23,6	12,8	63,7
65-69	125.281	23,1	10,4	66,5
70-74	103.301	22,2	8,5	69,3
75-79	79.745	22,2	6,8	71,0
80-84	75.038	24,3	5,2	70,5
>=85	66.755	25,9	4,1	70,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.061.646</b>	<b>41,1</b>	<b>15,0</b>	<b>44,0</b>

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

1986-2016 aldian hizkuntza-gaitasunaren bilakaera zer-nolakoa den aztertzean, ikusten da, 1986an, euskaldunen ehunekorik altuena zutenak 65 urtetik gorakoak zirela (% 31 baino gehiago) eta, orain ez bezala, adinean behera egin ahala, jaitsi egiten zela euskaldunen ehunekoa: % 20 edo % 21 ziren euskaldunak 30-49 urte bitartekoen artean. Dena dela, 5-29 urte bitartekoen adin-taldeetan euskaldunen ehunekoa gora egiten hasita zegoen (% 29 ziren euskaldunak 5-9 urte bitartekoen artean).


1986-2016 aldian, aldaketa handia gertatu da, 2016an gazteen artean baitago euskaldunen ehunekorik handiena alde handiz.

Euskaldun hartzaileei dagokienez, 1986an ehunekorik handiena gazteenen artean zegoen (% 35,1 euskaldun hartzaileak 10-14 urte bitartekoen artean) eta gutxituz zihoan adinean aurrera egin ahala. Euskaldunekin bezala, aldaketa gertatu da 30 urte hauetan. Izan ere, 2016an, arestian esan bezala, euskaldun hartzaileen ehunekorik handiena, 30-49 urte bitartekoena da.

1986an erdaldunen ehunekorik handiena 35-59 urte-bitarteko helduen artean zegoen (% 69tik gora). Gaur egun, aldiz, 60 urte edo gehiagokoek dute erdaldunen ehunekorik handiena (% 64-% 70 artean).

Dena dela, azken hamabost urteotako biztanleriaren mugimenduak, kanpoko jendea EAera etortzeak, batez ere atzerrian jaiotakoak, eragina izan du 20-34 urte bitarteko euskaldunen ehunekoan. Izan ere, % 22tik gora dira atzerrian jaiotakoak adin-talde horietan.

## 23. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1986-2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

Joera nahiko antzekoa da hiru lurraldeetan, nahiz eta ehunekoak oso desberdinak izan.

Araban, 25 urte baino gutxiago dutenen artean, erdia baino gehiago euskaldunak dira 2016an. Hortaz, oso gazteak dira arabar euskaldun gehienak. Adinean gora

egin ahala, jaitsiz doa euskaldunen ehunekoa. Horrela, 60 urtetik gora, arabarren %7 baino gutxiago dira euskaldunak. Araban euskaldunen ehunekoaren arteko aldeak oso handiak dira, gazteenen eta zaharrenen artean.

Era berean, Bizkaian, 30 urte baino gutxiago dutenen artean, erdia baino gehiago euskaldunak dira. Bestalde, adinean gora egin ahala, euskaldunen ehunekoak behera egiten du. Euskaldunen ehunekorik txikiena 65-79 urte bitartean dituzten bizkaitarren artean dago (%15). Izan ere, 80 urtetik gorako euskaldunen ehunekoak zertxobait handiagoa izaten jarraitzen du.

Azkenik, Gipuzkoan, 45 urte baino gutxiago dutenen artean, erdia baino gehiago euskaldunak dira. Araban eta Bizkaian bezala, zenbat eta gazteago orduan eta handiagoa da euskaldunen ehunekoa. Dena dela, ehunekoak oso desberdinak dira, esate baterako, 45 urtetik gorako artean %40-46 dira euskaldunak. Bestalde, umeen eta gazteen euskaldunen ehunekoa oso handia da, EAEko handiena (%90etik gorakoa 5 eta 14 urtekoen artean).

**14. taula.** Euskaldunak lurraldearen eta adinaren arabera. EAE, 2016 (%)


	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
≥ 85	25,9	5,1	19,1	46,2
80-84	24,3	5,2	17,4	44,2
75-79	22,2	4,5	15,5	41,0
70-74	22,2	4,9	15,2	40,8
65-69	23,1	5,4	15,9	42,2
60-64	23,6	7,3	17,5	40,8
55-59	26,5	11,8	20,3	43,4
50-54	29,0	15,4	22,9	45,3
45-49	30,1	16,1	24,3	46,0
40-44	34,7	20,4	28,9	50,6
35-39	40,1	26,7	34,5	55,8
30-34	46,4	32,3	41,7	61,2
25-29	55,4	41,9	50,8	69,2
20-24	69,2	57,0	66,4	78,8
15-19	82,7	74,5	80,6	89,2
10-14	87,3	81,0	85,4	92,6
05-09	84,4	72,8	83,0	91,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>41,1</b>	<b>27,4</b>	<b>35,3</b>	<b>56,5</b>

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

Sexuaren arabera aztertzerakoan, ez dago ia alderik euskaldunen ehunekoan gizonezkoen eta emakumezkoen artean EAEn: emakumezkoen %41,3 eta gizonezkoen %40,8 dira euskaldunak.

Badago, aldea, ordea, sexua adinarekin gurutzatzean. Ez dago alde handirik gazteenetan eta zaharretan, baina bai 25-54 urte bitartekoetan.


Izan ere, 25-54 urte bitarteko adin-talde horietan, handiagoa da emakumezko euskaldunen ehunekoa gizonezkoena baino. Horrela, 2 puntu baino gehiagoko aldea dago sexuaren araberako 25-34 urte bitarteko euskaldunen ehunekoan, eta are handiagoa 35-54 urte bitartekoaren artean, ia 5 puntukoa. Esate baterako, 35-39 urte bitarteko emakumezkoen %42,6 eta gizonezkoen %37,7 dira euskaldunak.



Arabako dago alderik handiena. Arabako emakumezkoen %28,4 dira euskaldunak eta gizonezkoen %26,4.


Aldea handia da sexua adinarekin gurutzatzean 15-54 urte bitartekoetan.

Horrela, 2,5 eta 4 puntutik gorako aldea dago sexuaren araberako 15-24 urte bitarteko euskaldunen ehunekoan, eta are handiagoa 25-54 urte bitartekoaren artean, 6 eta 7 puntu artekoa. Esate baterako, 35-39 urte bitarteko emakumezkoen %30,6 eta gizonezkoen %23 dira euskaldunak.

**25. irudia.** 15-54 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Araba, 2016 (%)

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.


Bizkaian ere aldea nabaria da 25-59 urte bitarteko euskaldunen ehunekoan sexuaren arabera (2,5 eta 5 puntu artekoa). Esate baterako, 35-39 urte bitartekoen artean, emakumezkoen %37,1 eta gizonezkoen %32 dira euskaldunak.

**26. irudia.** 25-59 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Bizkaia, 2016 (%)

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.



Gipuzkoan aldea txikiagoa da euskaldunen ehunekoan adinaren eta sexuaren arabera: aldea dago 35-54 urte bitartekoaren artean (3 eta 4 puntu artekoa), baina ez 25-34 urte bitartekoaren artean. Horrela, 40-44 urte bitartekoaren artean, emakumezkoen %52,7 eta gizonezkoen %48,6 dira euskaldunak.



Bi sexuen arteko alde horren arrazoi nagusia da euskaltegietan eta helduen euskalduntzeko erakunde desberdinetan euskaldundu diren gehienak emakumezkoak direla, hau da, euskaldun berri asko emakumezkoak direla.




### 3. LEHEN HIZKUNTZA

#### 3.1. Lehen hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik eskuratutako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikako datuen arabera, EAEn bost urte edo gehiagoko biztanleen % 18,3k euskara soilik eskuratu du etxean eta beste % 5,7k euskara eta gaztelania eskuratu ditu. Era berean, % 71,7k gaztelania soilik eskuratu du etxean. Azkenik, % 4,4k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat eskuratu du.

28. irudia. Lehen hizkuntza. EAE, 2016 (%)




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan 376.361 pertsonaren lehen hizkuntza euskara da, beste 116.443 pertsonaren lehen hizkuntza ere bada, baina gaztelaniarekin batera. Jende gehienak, hau da, 1.477.943 pertsonak, gaztelania soilik jaso du etxean, eta beste 90.899 pertsonak euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1986-2016 aldian lehen hizkuntzan izan diren gorabeherak bi puntu ingurukoak dira, oro har. Lehen hizkuntza euskara soilik edo gaztelania soilik dutenen ehunekoa jaitsi egin da (2,3 eta 2,2 puntu hurrenez hurren), baina etxean beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa igo egin da (2,6 puntu) eta baita euskara eta gaztelania batera jaso dutenen ehunekoa ere (2 puntu).

**29. irudia.** Lehen hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1986-2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estadistika.


### 3.2. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera

Etxean gaztelania soilik eskuratu dutenak EAEko hiru lurraldeetan nagusi badira ere, alde handia dago lurralde batetik bestera. Gipuzkoak du ehunekorik eta zenbaki absoluturik altuena euskara soilik jaso dutenen artean (% 34,2 eta 230.224 pertsona). Bizkaian lehen hizkuntza euskara jaso dutenak % 12,3 dira (133.552 pertsona), eta % 4,1 Araban (12.585 pertsona).

Lehen hizkuntza euskara eta erdara, biak jaso dituztenak, %7,7 dira Gipuzkoan, %4,9 Bizkaian eta %3,8 Araban.

Arabaren %86,4k jaso du gaztelania soilik etxean, %78,7k Bizkaian eta %53,7k Gipuzkoan.

**30. irudia.** Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



**Oharra:** zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Azkenik, azken urteotako atzerritarren immigrazioa dela-eta, gero eta biztanle gehiagok euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso du etxean. Araban gehiago dira lehen hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste

hizkuntza bat jaso dutenak euskara soilik jaso dutenak baino (% 5,6 versus % 4,1). Bizkaian eta Gipuzkoan etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoak txikiagoa da (% 4,1 eta % 4,5 hurrenez hurren).

**15. taula.** Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2016


	Guztira	Euskara	Biak	Gaztelania	Beste bat
<b>EAE</b>	2.061.646	376.361	116.443	1.477.943	90.899
<b>Araba</b>	304.652	12.585	11.654	263.304	17.109
<b>Bizkaia</b>	1.083.452	133.552	53.250	852.802	43.848
<b>Gipuzkoa</b>	673.542	230.224	51.539	361.837	29.942

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

1986-2016 aldian lehen hizkuntzak izan duen bilakaerari erreparaturaz, Araban, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak gora egin du (% 2,8 versus % 4,1), baita euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoak ere (% 1,5 versus % 3,8). Gauza bera esan daiteke etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoaz, 4,4 puntuko igoera izan baitu (% 1,2 versus % 5,6).

Etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoak, aldiz, jaitsi egin da, 8,2 puntu, alegia (% 94,6 versus % 86,4).

**31. irudia.** Lehen hizkuntzaren bilakaera. Araba, 1986-2016 (%)




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Bizkaian etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak behera egin du (% 14,1 versus % 12,3) eta baita gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoak ere (% 81,2 versus % 78,7).

Bestalde, etxean euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoak gora egin du, 2 puntuko igoera, hain zuzen (%2,9 versus %4,9). Era berean, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoak ere gora egin du, 2,2 puntu, alegia (% 1,9 versus % 4,1).

**32. irudia.** Lehen hizkuntzaren bilakaera. Bizkaia, 1986-2016 (%)




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Gipuzkoan ere etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak behera egin du, 4,4 puntuko jaitsiera, hain zuzen (% 38,6 versus % 34,2).

Etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoak ez du ia aldaketarik izan ehunekoetan (% 53,7 izan zen 1986n, eta ehuneko bera da 2016an).

Etxean euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoak, aldiz, gora egin du, 1,7 puntuko igoera, hain zuzen (% 6 versus % 7,7). Era berean, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoak ere gora egin du, 2,6 puntu, alegia (% 1,8 versus % 4,5).

**33. irudia.** Lehen hizkuntzaren bilakaera. Gipuzkoa, 1986-2016 (%)

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

### 3.3. Lehen hizkuntza eskualdearen arabera

Eskualdeei dagokienez, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena Lea-Artibaik du (% 69,6), eta baita euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten ehunekorik handienetako bat ere (% 6).

Urola Kostan ere hirutik bik euskara soilik jaso du etxean (% 62,3). Era berean, Busturialdeko eta Tolosaldeko biztanleen erdiak baino gehiagok euskara soilik jaso du etxean (% 55,9 eta % 55 hurrenez hurren).

Bestalde, bost eskualdetan gehiago dira etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenak euskara soilik jaso dutenak baino: Añana, Arabako Errioxa, Arabako Lautada, Mendialdea eta Enkarterri.



**16. taula.** Lehen hizkuntza eskualdearen arabera. EAE, 2016 (%)

		Euskara	Biak	Gaztelania	Beste bat
Araba	Aiaraldea	4,5	4,8	87,2	3,6
	Añana	2,6	2,7	89,5	5,2
	Arabako Errioxa	2,8	3,6	86,2	7,4
	Arabako Lautada	3,7	3,6	86,8	5,9
	Gorbeialdea	19,1	7,2	70,0	3,7
	Mendialdea	3,2	3,7	89,7	3,4
Bizkaia	Arratia Nerbioi	34,0	9,3	53,1	3,6
	Bilbo Handia	5,3	4,1	86,6	4,0
	Busturialdea	55,9	8,1	31,8	4,2
	Durangaldea	29,0	8,0	58,2	4,7
	Enkarterri	2,5	3,1	91,1	3,4
	Lea-Artibai	69,6	5,7	18,6	6,0
	Plentzia-Mungia	25,2	8,9	62,7	3,3
Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	20,0	7,2	67,8	5,0
	Debarrena	40,1	8,1	46,4	5,5
	Debagoiena	45,3	7,8	43,0	3,9
	Donostialdea	23,4	7,9	64,3	4,4
	Goierri	41,2	8,1	45,8	4,9
	Tolosaldea	55,0	7,9	33,2	4,0
	Urola Kosta	62,3	6,2	27,7	3,8

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

### 3.4. Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera


Etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa oso desberdina da gune batean ala bestean: %2,8 da lehen gune soziolinguistikoan, eta bigarrenean %7,7; hirugarren gunean, aldiz, asko igotzen da ehunekoa (%42,6), eta are handiagoa da laugarrenean (%72,1).

Etxean euskara eta gaztelania batera jaso dituztenen ehunekoetan ez dago hainbesteko alderik lau gune soziolinguistikoetan: %2,8 lehen gunean, %4,8 bigarren gunean, %8,3 hirugarren gunean eta %5,3 laugarren gunean.

Etxean gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoa, ordea, asko aldatzen da gune soziolinguistiko batetik bestera, batez ere hirugarren eta laugarren guneetan. Horrela, lehen eta bigarren guneetan %80tik gorakoak dira etxean gaztelania soilik jaso dutenak (%88,5 eta %83 hurrenez hurren), baina hirugarren gune soziolinguistikoan asko jaisten da ehunekoa (%44,8), eta are txikiagoa da laugarrenean (%18,9).

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenak gehiago dira lehen gune soziolinguistikoan euskara jaso dutenak baino, %6,5 dira beste hizkuntza bat jaso dutenak versus %2,3 euskara soilik eta %2,8 euskara eta gaztelania jaso dutenak. Gainerako gune soziolinguistikoetan berriz, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa txikiagoa da: %4,5 bigarren gunean, %4,3 hirugarrenean eta %3,7 laugarrenean.

### 34. irudia. Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.


### 3.5. Lehen hizkuntza udalerriaren arabera

Hiriburuei dagokienez, Gasteizen %3,6k euskara soilik jaso du etxean, Bilbon %5ek eta Donostian % 19,4k. Euskara gaztelaniarekin batera jaso du gasteiztarren % 3,5ek, bilbotarren % 4k eta donostiarren % 8,3k.

Gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoan ez dago ia alderik Gasteizen eta Bilboren artean: % 86,9k Gasteizen eta % 86,1ek Bilbon. Donostian, aldiz, ehunekoa txikiagoa da (% 67,7).

Etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenak gero eta gehiago dira hiru hiriburuetan: % 5,9 Gasteizen, % 4,9 Bilbon eta % 4,6 Donostian.

35. irudia. Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Gainerako udalerriei dagokienez, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena dute Orexak, Abaltzisketak, Zerainek, Errezilek eta Aulestik (% 86 eta % 88 bitartean).

Alderantziz, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekorik txikiena Arabako udalerrri hauetan aurkitzen da: Arana, Añana, Kripan eta Iekora (% 1 baino gutxiago). Bizkaian, ostera, honako hauetan: Ortuella, Trapagaran, Barakaldo eta Karrantza (% 1,8).

Etxean euskara eta gaztelania batera jaso dutenen ehunekorik handiena Orozkok eta Ubidek dute (% 16,6 eta % 15,7 hurrenez hurren).

Azkenik, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekorik handiena Navaridasek eta Berriatuak dute (% 15,6 eta % 10,4 hurrenez hurren).

### **3.6. Lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera**


Etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa % 20tik gorakoa da nagusien eta gazteen adin-taldeetan, hau da, 75 urte edo gehiagokoen eta 20 urte baino gutxiagokoen artean. Gainerako adin-taldeetan ehunekoa txikiagoa da, eta ehunekorik txikiena 30-44 urte bitartekoek dute: % 16 baino gutxiago.

Etxean euskara eta gaztelania jaso dutenen artean ehunekorik altuena umeek eta gazteek dute: ia % 14 dira 5-19 urteko taldean. Adinean gora egin ahala behera egiten du euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoak, eta 60 urtetik gorakoen artean % 3 baino txikiagoa da.

Bestalde, lehen hizkuntzaz ari garela, gaztelania izan arren lehen hizkuntza nagusia adin-talde guztietan, zenbat eta gazteago orduan eta txikiagoa da nagusitasun hori. Izan ere, 45 urtetik gorakoen artean lau lagunetik hiruk baino gehiagok gaztelania du lehen hizkuntza (% 75 edo gehiago), baina 45 urtetik behera ehunekoa jaitziz doa, eta 25 urtetik beherakoen artean % 64 baino gutxiago dira lehen hizkuntza gaztelania jaso dutenak. Era berean, 75 urtetik gorakoen artean ere ehunekoa txikituz doa adinean gora egin ahala, baina ez gazteen neurri berean.

EAEen etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa % 6tik gorakoa da 20 eta 39 urte bitartekoen artean. Ehuneko hori are handiagoa da 25-34 urte dituztenen artean, % 8tik gorakoa baita.

## 36. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.


EAEko lehen hizkuntzaren bilakaerari erreparatuz, 1986ko datuen arabera etxean euskara soilik jaso zutenen ehunekorik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (%30 baino gehiago), eta ehunekoak behera egiten zuen adinean behera egin ahala; horrela, 20 urtetik beherakoek artean zegoen ehuneko txikiena (%16). 2016an, berriz, gazteen %20k baino gehiagok jaso dute etxean euskara soilik.

Etxean euskara eta gaztelania jaso zutenei erreparatuz, umeen eta gazteen ehunekoa askoz txikiagoa zen 1986an gaur egun baino, erdia inguru. Horrela, gaurko 5-9 urte bitartekoek %13,8k euskara eta gaztelania ditu lehen hizkuntza, eta duela 30 urte %7,8k.

Etxean gaztelania soilik jaso zutenei dagokienez, 1986an, ehunekoa gero eta handiagoa zen adinean behera egin ahala. %75 baino gehiago ziren etxean gaztelania jaso zutenak 44 urtetik beherakoek artean, gazteenen adin-taldea izan ezik. Gaur egun, ordea, alderantziz gertatzen da.

Etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso zutenei dagokienez, 1986an ehunekorik txikiena umeek eta gazteek zuten (%2 baino gutxiago). 2016ko ehunekoekin alderatuz, adin-talde batzuetan 7 puntuko aldea dago. Horrela, 1986an 25-29 urte bitartekoen %1,6k jaso zuen euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat, eta 2016an, aldiz, %8,4 dira.

**37. irudia.** Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1986-2016 (%)




Lurraldearen arabera aztertuz, Araban etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena gazteenek dute (% 7,9) eta txikiena 25 urte edo gehiagokoek (% 3 eta % 4 inguru, hurrenez hurren).

Era berean, gero eta handiagoa da Araban etxean euskara eta gaztelania batera jaso dutenen ehunekoa. Horrela, 5-35 urte bitartekoek ehuneko handiagoak jaso ditu etxean euskara eta gaztelania, euskara soilik baino. Ehuneko handituz doa adinean behera egin ahala.

Bestalde, Araban aipagarria da etxean gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa 50 urte baino gutxiago dituztenen artean. Bereziki handia da ehuneko hori 25-29 eta 30-34 urte dituztenen artean: % 10,1 eta % 10,6 hurrenez hurren.

Azkenik, lehen hizkuntza gisa gaztelania nagusi den arren adin-talde guztietan, nabarmen egiten du behera, adinean behera egin ahala.

**38. irudia.** Lehen hizkuntza adinaren arabera. Araba, 2016 (%)




Bizkaian, etxean euskara jaso dutenen ehunekorik handiena zaharrenek eta gazteenek dute. Horrela, 85 urte edo gehiagokoen %17,5ek jaso du etxean euskara soilik eta 5-9 urte bitartekoen %15ek. Ehunekorik txikiena 25-49 urte bitartekoek dute: %11 baino gutxiago dira.

Araban bezala Bizkaian ere gero eta gehiago dira euskara eta gaztelania batera jaso dituztenak. Horrela, 20 urtetik beherako gazteen %13k baino gehiagok jaso dituzte hizkuntza biak etxean.

Euskara eta gaztelania ez diren hizkuntzek ere pisu handia dute adin-talde batzuetan, 25-29 eta 30-34 urte bitartekoen artean bereziki: %7,5 eta %7,6 hurrenez hurren.

**39. irudia.** Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bizkaia, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Gipuzkoari dagokionez, etxean euskara soilik jaso dutenen artean handiagoa da zaharrenen ehunekoa gazteena baino: %43,8koa da 85 urte edo gehiagokoen




taldean, eta jaisten doa adinean behera egin ahala. Horrela, ehunekorik txikiena 30-34 urte bitartekoena da (%29,9). Gazteen artean berriro gora egiten du, eta txikienen artean berriro jaisten hasi: 15-19 urte bitartekoen artean %38,3koa da, eta %35ekoa, berriz, 5-9 urte bitarteko taldean.

Horrezaz gain, Gipuzkoan beste bi lurraldeetan baino ehuneko handiagoak jaso ditu euskara eta gaztelania etxean, batez ere gazteenek, %15ek baino gehiagok 5-19 urte bitartekoen artean.

Era berean, Araban eta Bizkaian baino ehuneko txikiagoak jaso du gaztelania soilik etxean Gipuzkoan adin-talde guztietan. Horrela, 25 urte baino gutxiagokoen erdiak baino gutxiagok jaso du gaztelania soilik etxean.

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa nahiko handia da adin-talde batzuetan, 25-29 eta 30-34 urte bitartekoen artean bereziki: %9,1 eta %9 hurrenez hurren.



40. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Gipuzkoa, 2016 (%)



EAEen, lehen hizkuntza eta sexua gurutzatzean ikusten da ez dagoela alderik emakumezkoen eta gizonezkoen lehen hizkuntzetan. Ia bera da euskara soilik jaso dutenen emakumezkoen zein gizonezkoen ehunekoak (% 18,3 versus % 18,2) eta baita euskara eta gaztelania batera jaso dutenena ere (% 3,8 versus % 3,9). Gauza bera esan daiteke gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoaz (% 71,8 versus % 71,6) eta beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoaz ere (% 4,4 versus % 4,5).

Gainera, gauza bera gertatzen da hiru lurraldeetan, ez dago alderik emakumezkoen eta gizonezkoen ehunekoetan.

**41. irudia.** Lehen hizkuntza sexuaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Horrezaz gain, lehen hizkuntza sexuarekin eta adinarekin gurutzatzean, ikusten da ez dagoela alderik oro har gizonezkoen eta emakumezkoen ehunekoetan.

Alderik handiena beste hizkuntza bat jaso duten 25-29 eta 30-34 urte bitartekoen artean ikusten da: 25-29 urte bitarteko emakumezkoen % 9,1ek versus gizonezkoen

% 7,7k jaso dute euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat, eta 30-34 urte bitarteko emakumezkoen %9k versus gizonezkoen %8k.

42. irudia. Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

### 3.7. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera (BILA indizea)

Euskaldunen hizkuntza-ibilbidea aztertuko da jarraian. Horretarako, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna aldagaiak gurutzatuko dira. Emaitzari BILA indizea deitu diogu.

Euskaldunak hiru multzotan banatu dira euren lehen hizkuntzaren arabera: euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak.


2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren arabera, EAEn bost urte edo gehiagoko euskaldunen %42,3k euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharra da. Euskaldun zaharrak 357.917 dira EAEn.

Euskaldunen % 12,2k euskara eta gaztelania jaso ditu, eta jatorrizko elebiduna da. 102.842 euskaldun jatorrizko elebidunak dira.

Azkenik, etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak % 45,5 dira, hauek euskaldun berriak dira. Euskaldun berriak etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian. EAEn 385.548 pertsona euskaldun berriak dira.

Gaur egun, beraz, euskaldun gehiago daude euskara bigarren hizkuntza dutenak, euskara lehen hizkuntza soilik dutenak baino.

**43. irudia.** Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2016 (%)




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

Euskaldunen multzoa asko aldatu da 1986-2016 aldian. Izan ere, 2016an ez bezala, 1986an euskaldun zaharren ehunekoa euskaldun berriena baino askoz handiagoa zen. 1986an, euskaldunen % 76,8 ziren euskaldun zaharrak eta % 14,4 euskaldun berriak. 30 urte geroago, ordea, esan bezala, gehiago dira euskaldun berriak euskaldun zaharrak baino (% 45,5 versus % 42,3).

Datuak lurraldearen arabera aztertuz gero, aldeak esanguratsuak dira. Araban eta Bizkaian euskaldun gehienak euskaldun berriak dira (% 75,8 eta % 55,5, hurrenez hurren). Gipuzkoan, aldiz, euskaldun gehienak euskaldun zaharrak dira (% 58,8).


Araban 1986an ere euskaldun gehienak euskaldun berriak ziren (% 53), baina Bizkaian eta Gipuzkoan euskaldun berrien ehunekoa oraingoaren erdia baino txikiagoa zen (% 19,9 Bizkaian eta % 8,3 Gipuzkoan).

#### 44. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1986-2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

#### 45. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Eskualdeei dagokienez, Arabako eskualde guztietan Gorbeialdean izan ezik, lau euskaldunetik hiru baino gehiago euskaldun berriak dira. Gorbeialdean, euskaldunen ia erdiak dira euskaldun berriak (%47,5).

Gipuzkoak ia kontrako egora bizi du: euskaldun zaharrak nagusi dira eskualde guztietan, Bidasoa Beherean (%42,4) eta Donostialdean (%46,3) izan ezik. Bi eskualde horietan, euskaldun berriak %43,1 eta %39,2 dira, hurrenez hurren; Gipuzkoako gainerako eskualdeetan, euskaldun berrien ehunekoa %25 baino txikiagoa da.

Bizkaiari dagokionez, Bilbo Handian eta Enkarterrin euskaldun gehienak euskaldun berriak dira (%72,0 eta %82,8, hurrenez hurren). Bizkaiko gainerako eskualdeetan, aldiz, euskaldunen artean nagusi dira euskaldun zaharrak. Bizkaian dago euskaldun zaharren ehunekorik handiena duen EAEko eskualdea: Lea-Artibai (%84,7).

Jatorrizko elebidunek euskara eta erdara jaso dute etxean, eta euskaldunen %15 baino gutxiago dira EAEko eskualde guztietan.

17. taula. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta eskualdearen arabera. EAE, 2016 (%)

		Euskaldunak guztira	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak
Araba	Aiaraldea	10.702	11,0	12,9	76,1
	Añana	1.064	10,2	10,6	79,1
	Arabako Errioxa	2.333	10,3	12,3	77,4
	Arabako Lautada	64.955	11,4	11,3	77,3
	Gorbeialdea	3.819	38,7	13,8	47,5
	Mendialdea	683	10,8	13,0	76,1
Bizkaia	Arratia Nerbioi	12.776	56,9	14,6	28,5
	Bilbo Handia	234.745	16,0	12,0	72,0
	Busturialdea	31.652	74,5	10,2	15,3
	Durangaldea	47.518	53,5	14,1	32,5
	Enkarterri	8.240	7,7	9,5	82,8
	Lea-Artibai	19.915	84,7	6,6	8,8
	Plentzia-Mungia	27.701	45,3	15,3	39,5
Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	32.606	42,4	14,6	43,1
	Debabarrena	31.789	64,1	12,0	23,9
	Debagoiena	38.831	67,9	11,1	21,0
	Donostialdea	148.972	46,3	14,6	39,2
	Goierrri	39.722	64,5	12,1	23,4
	Tolosaldea	33.486	74,0	10,1	16,0
	Urola Kosta	54.828	79,4	7,5	13,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.


Euskaldun berrien erdia (%49,9) EAEko sei udalerrri handienetan bizi da (Bilbo, Gasteiz, Donostia, Barakaldo, Getxo eta Irun). EAEko 45 udalerritan lau euskaldunetik hiru edo gehiago euskaldun berriak dira, eta udalerrri horiek guztiak Arabako eta Bizkaiko eremu erdaldunean daude. Barakaldo da euskaldun berrien ehunekorik handiena duen udalerrria (%85,9). Halaber, 84 udalerrri daude EAEn euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berriak direnak. 84 udalerrri horietan EAEko euskaldun guztien %40,6 bizi dira, eta horrek berretsi egiten du gertatzen ari den euskaldunaren perfilaren aldaketa.

EAEko 86 udalerritan, aldiz, euskaldunen %75 edo gehiago euskaldun zaharrak dira. EAEko hiru lurraldeetako eremu euskaldunean kokatutako udalerrriak dira,

eta oro har udalerrri txikiak dira. Izan ere, Azpeitiak, Azkoitiak, Oñatik eta Bermeok baino ez dituzte 10.000 biztanle baino gehiago.

Jatorrizko elebidunei dagokienez, euskaldunen laurdena edo gutxiago dira EAEko udalerrri guztietan. Salbuespenak badira ere, esan daiteke udalerrri euskaldunetan dagoela jatorrizko elebidunen ehunekorik txikiena. Jatorrizko elebidunen ehunekorik handiena duten udalerrriak Zalduondo (% 26,3), Orozko (% 25) eta Moreda Araba (% 25) dira; eta jatorrizko elebidunen ehunekorik txikiena duten udalerrriak<sup>4</sup> Zerain (% 2,3), Aulesti (% 2,2), Gaztelu (% 2,2) eta Orexa (% 1) dira.

#### 46. irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

BILA indizea gune soziolinguistikoaren arabera aztertuz gero, aldeak nabarmenak dira 1. eta 2. gune soziolinguistikoaren, alde batetik, eta 3. eta 4. gune soziolinguistikoaren artean, bestetik.

Lehenengo eta bigarren gune soziolinguistikoetan, euskaldun gehienak euskaldun berriak dira (% 78 eta % 65,2 hurrenez hurren). Bi gune horietan, euskaldun zaharrak euskaldunen % 9,8 eta % 21,8 dira, hurrenez hurren.


Hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan, egoera alderantzizkoa da. Laugarren gune soziolinguistikoan euskaldun zaharrak euskaldun guztien % 84,9 dira, eta hirugarren gunean % 65,1. Bi gune horietan, euskaldun berriak % 9,2 eta % 22,9 dira hurrenez hurren.

<sup>4</sup> 2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren estatistikaren arabera, Lagranen ez dago jatorrizko elebidunik.



Jatorrizko elebidunen ehunekoa bertsua da lehenengo, bigarren eta hirugarren gune soziolinguistikoetan (% 12,2, % 13,1 eta % 11,9 hurrenez hurren), eta erdira jaisten da laugarren gune soziolinguistikoan (% 5,9).

**47. irudia.** Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

### 3.8. Euskaldunak lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera aztertuz gero, azpimarratzekoa da gazteen eta nagusien artean dagoen aldea. Izan ere, euskaldun zaharren ehunekorik handiena nagusien artean dago, eta adinak behera egin ahala behera egiten du euskaldun zaharren ehunekoak ere. Kontrakoa gertatzen da, aldiz, euskaldun berrien eta jatorrizko elebidunen kasuan, hau da, ehunekorik txikiena nagusien artean dago, eta adinak behera egin ahala gora egiten du euskaldun berrien eta jatorrizko elebidunen ehunekoak.

EAEn, 65 urte edo gehiagoko nagusien artean, lau euskaldunetik hiru baino gehiago euskaldun zaharrak dira. Adin horretako pertsonen artean, berriz,

euskaldun berrien ehunekoa % 15 baino txikiagoa da, eta jatorrizko elebidunena % 10 baino txikiagoa.

30 urtetik beherako gazte euskaldunen artean, euskaldun zaharrak hirutik bat baino gutxiago dira, eta erdia baino gehiago euskaldun berriak. Jatorrizko elebidunak % 15 inguru dira.

Euskaldun zaharrak nagusi dira 45 urtetik gorako euskaldunen artean, eta euskaldun berriak 40 urtetik beherako euskaldunen artean. Jatorrizko elebidunak 6 euskaldunetik bat baino gutxiago dira adin-talde guztietan.

Euskaldun gazteen eta nagusien arteko joera horiek EAEko hiru lurraldeetan ikus daitezke, baina lurralde batetik bestera badira aldeak, talde bateko eta besteko proportzioetan. Gipuzkoako euskaldun zaharren ehunekoa handiagoa da, adin-talde guztietan, beste bi lurraldeetakoa baino. Bizkaian eta, bereziki, Araban euskaldun zaharren ehunekoa EAEko batez bestekoa baino txikiagoa da adin-talde guztietan.

Euskaldun berriekin kontrakoa gertatzen da. Bizkaian eta, bereziki, Araban euskaldun berrien ehunekoa EAEkoaren batez bestekoa baino handiagoa da adin-talde guztietan. Araban, esaterako, euskaldun berriak EAEko batez bestekoaren halako bi dira 45 urtetik gorakoen artean. Gipuzkoan, euskaldun berrien ehunekoa EAEko batez bestekoren azpitik dago adin-talde guztietan, eta 15 urtetik beherako gazteen artean nagusi badira ere, adin horretako gazteen erdia baino gutxiago dira.


Jatorrizko elebidunei dagokienez, EAEko hiru lurraldeen artean ez dago alde esanguratsurik adinari erreparatzen badiogu. Gipuzkoan, 25 urtetik beherakoen jatorrizko elebidunen ehunekoak Araban eta Bizkaian baino zertxobait handiagoak dira; eta Araban, 70 urtetik gorakoen artean Bizkaian eta Gipuzkoan baino handiagoak dira.

Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, 30 urteotan euskaldun zaharren ehunekoak behera egin du adin-talde guztietan. Jaitsiera hori handiagoa izan da adinak behera egin ahala. 1986an euskaldun zaharrak nagusi ziren adin-talde guztietan, baita gazteenen artean ere, nahiz eta alde txikia zuten euskaldun berriekiko.

Jatorrizko elebidunen ehunekoa, aldiz, 1986an baino handiagoa da 2016an adin-talde guztietan, 15 urtetik beherako gazteen artean izan ezik.

Euskaldun berriei dagokienez, are handiagoa da aldea, 1986an baino gehiago baitira gaur egun, adin-talde guztietan, batez ere 50 urtetik beherakoen artean.

48. irudia. Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 1986-2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta sexuaren arabera aztertuz gero, esan daiteke aldea oro har txikia dela gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Izan ere, alde hori puntu batekoa edo txikiagoa da, bai EAEn, baita hiru lurraldeetan ere. Alde horiek txikiagoak dira Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian baino.

Alde horiek txikiak izan arren, norabide berean ematen dira beti. Hau da, euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen artean, gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino zertxobait handiagoa da, oso gutxi. Euskaldun berrien artean, berriz, emakumezkoen ehunekoa gizonezkoena baino handiagoa da, eta aldea zertxobait handiagoa da.

Euskaldunen lehen hizkuntzaren eta sexuaren azterketari adina gehitzen badiogu, joera mantentzen den arren, gizonezko eta emakumezko helduen artean dauden aldeak esanguratsuak dira, bereziki 35 eta 59 urte bitartekoaren artean daudenak. Adin-tarte horretako euskaldun zaharren artean, gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino 6,7 puntu handiagoa da betez beste; euskaldun berrien artean, aldiz, emakumezkoen ehunekoa da gaineratik dagoena: batez beste 7,3 puntu. Alde horiek handiagoak dira Bizkaian, eta txikiagoak Araban eta, batez ere, Gipuzkoan.

**18. taula.** Euskaldunak lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2016 (%)

	Euskaldun zaharrak			Jatorrizko elebidunak			Euskaldun berriak		
	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.
<b>Guztira</b>	42,3	42,5	42,1	12,2	12,5	11,8	45,6	45,0	46,1
<b>5-9</b>	23,1	23,4	22,7	14,6	14,7	14,6	62,3	61,9	62,8
<b>10-14</b>	23,5	23,7	23,2	14,8	14,8	14,8	81,8	61,5	62,0
<b>15-19</b>	25,0	25,2	24,8	16,3	16,5	16,2	58,7	58,3	59,1
<b>20-24</b>	27,0	27,4	26,6	15,3	15,6	15,1	57,6	57,0	58,3
<b>25-29</b>	29,0	29,8	28,2	13,5	13,9	13,0	57,6	56,3	58,8
<b>30-34</b>	32,3	34,1	30,65	12,7	13,2	12,3	55,0	52,8	57,1
<b>35-39</b>	37,6	39,8	35,6	12,3	13,0	11,7	50,1	47,2	48,0
<b>40-44</b>	44,1	47,2	41,2	11,2	11,7	10,8	44,8	41,2	48,0
<b>45-49</b>	51,8	56,1	48,1	10,3	10,5	10,2	37,8	33,3	41,7
<b>50-54</b>	56,4	60,6	52,9	9,3	9,9	8,9	34,3	29,5	38,2
<b>55-59</b>	62,9	66,4	59,7	8,6	8,8	8,4	28,6	24,8	31,9
<b>60-64</b>	71,5	73,1	70,0	8,2	7,9	8,5	20,3	18,9	21,5
<b>65-69</b>	77,4	78,2	76,7	8,2	7,7	8,7	14,4	14,1	14,6
<b>70-74</b>	81,8	81,8	81,8	7,5	7,4	7,7	10,7	10,8	10,6
<b>75-79</b>	86,0	85,7	86,2	6,6	6,2	6,9	7,4	8,1	7,0
<b>80-84</b>	87,0	87,3	86,8	6,0	5,8	6,2	7,0	6,9	7,0
<b>&gt;=85</b>	87,3	87,6	87,2	6,4	6,6	6,3	6,3	5,8	6,5

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2016.

Jatorrizko elebidun gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden aldeak puntu batekoak edo txikiagoak dira adin-talde guztietan.


## 4. ETXEKO HIZKUNTZAREN ERABILERA

### 4.1. Etxeko hizkuntzaren erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan

2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren arabera, bost urte edo gehiagoko 2.061.646 pertsona bizi dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik, % 13,8k euskara erabiltzen du etxean (284.270 pertsona), eta % 9,5ek euskara eta gaztelania (195.891 pertsona).

Etxean gaztelania erabiltzen dutenak % 73,9 dira (1.524.310 pertsona), eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 2,8 (57.175 pertsona).

49. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.


1991-2016 aldian, euskararen erabilerak etxean ez du aldaketarik izan. 1991n, %13,8 ziren euskara erabiltzen zutenak, 2016ko ehuneko bera. Kopuru absolutuetan, 2016an 1991n baino 5.200 pertsona gehiagok erabiltzen dute euskara etxean (+%2), hau da, 25 urte horietan EAEko biztanleriak izan duen hazkunde bera.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoak gora egin du 1991 eta 2016 bitartean (1,5 puntu). 1991n %8 ziren etxean hizkuntza biak erabiltzen zituztenak eta 2016an %9,5.

Etxean gaztelaniaz mintzatzen direnak 1991n baino gutxiago dira 2016an: 3,7 puntu eta 39.800 pertsona gutxiago (1991n %77,6 ziren eta 2016an %73,9).

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak eta kopuruak gora egiten jarraitzen du: 25 urtetan 2,3 puntu eta 46.700 pertsona gehiago dira (1991n %0,5 ziren, eta 2016an %2,8).

#### 50. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.


## 4.2. Etxeko hizkuntzaren erabilera lurraldearen arabera

Etxeko erabileran alde esanguratsuak daude EAEko hiru lurraldeen artean. Araban %2,6k erabiltzen du euskara etxean, eta %5,7k euskara eta gaztelania. Bizkaian, aldiz, %8,8k erabiltzen du euskara etxean eta %8k euskara eta gaztelania. Gipuzkoa da, alde handiz, etxean euskararen erabilerarik handiena duen lurraldea. Izan ere, gipuzkoarren %26,9k euskara erabiltzen du etxean eta %13,6k euskara eta gaztelania.

Oraindik ere, hiru lurraldeetako etxeetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da: Araban %87,5, Bizkaian %80,9 eta Gipuzkoan %56,7.

Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten erabilera %4,1 da Araban, %2,3 Bizkaian eta %2,9 Gipuzkoan.

51. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)



**Oharra:** zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

1991-2016 aldian, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du Araban, bai ehunekotan (1,3 puntu), baita kopuru absolututan ere (4.600 pertsona gehiago). Bizkaian ehunekoak ez du aldaketarik izan (-0,1 puntu), baina kopuru absolututan 3.700 pertsona gutxiagok erabiltzen dute euskara etxean. Gipuzkoan, jaitsiera txikia izan da ehunekoan (-0,4 puntu), baina kopuru absolututan 4.200 pertsona gehiago dira etxean euskara erabiltzen dutenak.

1991 eta 2016 bitartean, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoak eta kopuru absolutuak gora egin dute Araban eta Bizkaian. Araban 3 puntu egin du gora (10.400 pertsona gehiago) eta Bizkaian 2 puntu (20.700 pertsona gehiago). Gipuzkoan ehunekoak ez du aldaketarik izan, baina 2.300 pertsona gehiago daude etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak.

Gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du hiru lurraldeetan: Araban -8,1 puntu, Bizkaian -3,6 puntu eta Gipuzkoan -1,9 puntu. Kopuru absolutuetan, baina, beherakada Bizkaian izan da (60.000 pertsona gutxiago), ez ostera Araban eta Gipuzkoan (18.000 eta 2.100 pertsona gehiago, hurrenez hurren)

Azken 25 urteotan, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan: 3,7 puntu Araban (11.500 pertsona gehiago), 1,9 puntu Bizkaian (19.200 pertsona gehiago) eta 2,4 puntu Gipuzkoan (15.900 pertsona gehiago).



**19. taula.** Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2016

2016	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Besterik
EAE	2.061.646	284.270	195.891	1.524.310	57.175
Araba	304.652	8.079	17.479	266.473	12.621
Bizkaia	1.083.452	95.002	87.135	876.045	25.270
Gipuzkoa	673.542	181.189	91.277	381.792	19.284
%					
EAE	100	13,8	9,5	73,9	2,8
Araba	100	2,6	5,7	87,5	4,1
Bizkaia	100	8,8	8,0	80,9	2,3
Gipuzkoa	100	26,9	13,6	56,7	2,9
1991	Guztira	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Besterik
EAE	2.014.856	279.042	161.260	1.564.144	10.410
Araba	259.887	3.389	7.040	248.382	1.076
Bizkaia	1.107.120	98.702	66.352	936.073	5.993
Gipuzkoa	647.849	176.951	87.868	379.689	3.341
%					
EAE	100	13,8	8,0	77,6	0,5
Araba	100	1,3	2,7	95,6	0,4
Bizkaia	100	8,9	6,0	84,5	0,5
Gipuzkoa	100	27,3	13,6	58,6	0,5

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika.

### 4.3. Etxeko hizkuntzaren erabilera eskualdearen arabera

EAEko eskualdeak lau multzotan banatu daitezke, etxeko euskararen erabilera-mailaren arabera. Etxean euskara gehien erabiltzen dutenak EAEko lau eskualde euskaldunenetako bizilagunak dira. Eskualde horietan nagusi dira etxean euskara erabiltzen dutenak: Lea-Artibai (%65,1), Urola Kosta (%53,7), Tolosaldea (%47,5) eta Busturialdea (%43,1). Lau eskualde horietan, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoa EAEko batez bestekoaren gainetik dago (%13 eta %16 bitartean), Lea-Artibain izan ezik (%7,7). Eskualde horietan etxean gaztelania


erabiltzen dutenen ehunekoak EAEko txikienak dira (% 40 baino txikiagoak), eta etxean euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa %3 ingurukoa da. Horien artean, aipatzekoa da Lea-Artibai (%3,4), EAEko eta Bizkaiko batez bestekoaren gaineratik baitago. Lau eskualde horietan bizi dira EAEko biztanleen %8,9 eta euskaldunen % 16,5.

Bigarren multzo batean daude etxeko erabilera-maila herena ingurukoa duten eskualdeak: Debagoiena (% 35,7), Goierri (% 33,7), Debarrena (% 30,6) eta Arratia Nerbioi (% 27,3). Eskualde horietan, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoa, aurreko multzoan bezalaxe, EAEko batez bestekoaren gaineratik dago (% 14 eta % 16 bitartean). Lau eskualde horietako biztanleen ia erdiak gaztelania erabiltzen du etxean. Azkenik, gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa % 3 ingurukoa da. Lau eskualde horietan bizi dira EAEko biztanleen % 9,6 eta euskaldunen % 14,5.

Hirugarren multzoan, etxean euskara bost biztanletik batek baino gutxiagok (% 14 eta % 19 bitartean) erabiltzen duten eskualdeak daude: Durangaldea (% 19,6), Plentzia-Mungia (% 17,1), Donostialdea (% 17,0), Gorbeialdea (% 14,3) eta Bidasoa Beherea (% 14,2). Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa % 10 eta % 14 bitartean dago. Bost eskualde horietako biztanle gehienek gaztelania erabiltzen dute etxean (% 62 eta % 73 artean). Euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 2 eta % 3 bitartean daude. Bost eskualde horietan EAEko biztanleen laurdena bizi da (% 26) eta euskaldunen ia herena (% 31).

EAEko gainerako zazpi eskualdeetan, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa % 3 edo txikiagoa da: Bilbo Handia (% 3,2), Aiaraldea (% 2,6), Enkarterri (% 2,5), Arabako Lautada (% 2,4), Mendialdea (% 1,9), Arabako Errioxa (% 1,6) eta Añana (% 1,2). Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoa handiagoa da (% 3,5 eta % 7,5 bitartekoa). Eskualde horietan erabat nagusi dira (% 88 eta % 91 bitartean) etxean gaztelania erabiltzen dutenak. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten erabilerari dagokionez, bi talde egin daitezke: lehenengo taldean leudeke EAEko batez bestekoaren azpitik dauden eskualdeak (% 2,5 inguru): Bilbo Handia, Aiaraldea, Mendialdea eta Enkarterri; eta bigarrenean EAEko ehunekorik handienak dituztenak: Arabako Errioxa (% 6,2), Arabako Lautada (% 4,3) eta Añana (% 3,9). Zazpi eskualde horietan, EAEko biztanleen erdia baino gehiago (% 55) eta euskaldunen herena baino gehiago (% 38) bizi dira.

**52. irudia.** Etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak eskualdearen arabera. EAE, 2016 (%)



Azken 25 urteotan, euskararen erabilera etxean oro har behera egin du eskualde euskaldunetan, eta gora eskualde erdaldunetan.

1991 eta 2016 bitartean, etxean euskara erabiltzen dutenen jaitsierarik handiena izan duten eskualdeak honako hauek dira: Urola Kosta (-10,7 puntu), Plentzia-Mungia (-10,7 puntu), Busturialdea (-10,4 puntu), Lea-Artibai (-9,8 puntu), Arratia Nerbioi (-8,7 puntu), Durangaldea (-5,4 puntu) eta Gorbeialdea (-5,2 puntu). Jaitsiera txikiagoa izan da honako hauetan: Tolosaldea (-3 puntu), Debagoiena (-2,7 puntu), Donostialdea (-2,2 puntu), Goierrri (-1,6 puntu) eta Debabarrena (-1 puntu).

Eskualde horietan guztietan, behera egin du etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak ere, salbu eta Gorbeialdea (+3,2 puntu), Durangaldea (+1,5 puntu), Urola Kosta (+1 puntu) eta Donostialdea (+0,8 puntu) eskualdeetan. Jaitsierak puntu 1 eta 3 puntu artekoak izan dira 1991-2016 aldian.

Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoari dagokionez, esan daiteke oro har gora egin duela eskualde horietan, baina ez guztietan. Izan ere, jaitsi egin da Donostialdean (-5,1 puntu), Goierri (-0,9 puntu) eta Gorbeialdean (-0,8 puntu). Igoerak 7 eta 12 puntu bitartekoak izan dira Plentzia-Mungia, Busturialdea, Lea-Artibai, Urola Kosta eta Arratia Nerbioi eskualdeetan; eta puntu 1 eta 2 puntu bitartekoak Durangaldea, Debagoiena, Tolosaldea eta Debabarrena eskualdeetan.

20. taula. Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1991-2016 (%)

Lurraldea	Eskualdea	Euskara		Euskara eta gaztelania		Gaztelania		Beste bat	
		1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016
Araba	Aiaraldea	1,1	2,6	4,3	7,5	94,4	87,3	0,2	2,6
	Añana	0,2	1,2	0,8	3,5	98,9	91,3	0,1	3,9
	Arabako Errioxa	0,3	1,6	0,8	4,2	98,7	88	0,1	6,2
	Arabako Lautada	0,9	2,4	2,5	5,5	96,1	87,8	0,5	4,3
	Gorbeialdea	19,5	14,3	7,1	10,3	73,0	72,8	0,4	2,6
	Mendialdea	0,5	2,5	0,7	5,3	98,8	89,6	0,0	2,6
Bizkaia	Arratia Nerbioi	36	27,3	13,1	12,8	50,6	57,6	0,2	2,3
	Bilbo Handia	2,0	3,2	4,1	6,5	93,4	88,1	0,5	2,3
	Busturialdea	53,5	43,1	20,1	16,4	26,2	37,6	0,2	2,9
	Durangaldea	25,0	19,6	12,8	14,3	61,2	63,5	1,0	2,6
	Enkarterri	0,1	1,9	1,0	5,5	98,8	90,2	0,1	2,4
	Lea-Artibai	74,9	65,1	8,8	7,7	15,5	23,8	0,8	3,4
	Plentzia-Mungia	27,8	17,1	17,2	14,2	54,7	66,7	0,4	1,9
Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	12,5	14,2	12,0	12,2	75,1	70,1	0,3	3,5
	Debabarrena	31,6	30,6	17,7	15,4	50,0	50,8	0,7	3,2
	Debagoiena	38,4	35,7	17,2	15,8	44,0	45,9	0,4	2,5
	Donostialdea	14,8	17,0	12,2	13,0	72,4	67,3	0,7	2,7
	Goierri	35,3	33,7	14,7	14,4	49,5	48,6	0,5	3,3
	Tolosaldea	50,5	47,5	15,4	14,4	33,9	35,3	0,2	2,9
	Urola Kosta	64,4	53,7	11,8	12,8	23,5	30,7	0,3	2,7

1991 eta 2016 bitartean, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza baten erabilerak gora egin du eskualde horietan guztietan. Igoera puntu 1 eta 3 puntu artekoa izan da.

Gainerako zortzi eskualdeetan (Aiaraldea, Arabako Errioxa, Añana, Arabako Lautada, Bidasoa Beherea, Bilbo Handia, Enkarterri eta Mendialdea), gora egin dute etxean euskara erabiltzen dutenek (1 eta 2 puntu artean), euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenek (1 eta 5 puntu artean), eta euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenek (2 eta 6 puntu artean). Aldiz, behera egin du etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak (5 eta 11 puntu artean).

#### **4.4. Etxeko hizkuntzaren erabilera gune soziolinguistikoaren arabera**






Lehen gune soziolinguistikoan (euskaldunak %20 baino gutxiago dira) etxean euskara erabiltzen dutenak %1 dira eta euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak %3,5. Lehenengo gune soziolinguistikoan %90,1ek gaztelania erabiltzen du etxean. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %5,3 dira.

Bigarren gune soziolinguistikoan (euskaldunak %20 eta %50 bitartean) etxean euskara erabiltzen dutenak %5,0 dira, eta euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak %7,6. Bigarren guneko biztanle gehienek (%84,6) gaztelania erabiltzen dute etxean. Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %2,8 dira.

Hirugarren gune soziolinguistikoan (euskaldunak %50 eta %80 bitartean) biztanleen herenak (%33,2) euskara erabiltzen dute etxean. Euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak %15,6 dira. Hirugarren guneko biztanleen ia erdia (%48,5) gaztelaniaz aritzen da etxean, eta %2,8k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen du.

Azkenik, laugarren gune soziolinguistikoan (euskaldunak %80 edo gehiago) hiru biztanletik bik euskara erabiltzen dute etxean (%67,9), eta %8,5ek euskara eta gaztelania, biak. Gaztelania erabiltzen dutenak bostetik bat dira (%21,1), eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %2,5.

**53. irudia.** Etxeko hizkuntzaren erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2016 (%)

**1. gune soziolinguistikoa (% <20)**

**2. gune soziolinguistikoa (% 20-50)**

**3. gune soziolinguistikoa (% 50-80)**

**4. gune soziolinguistikoa (% ≥80)**


Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Azken 25 urteotako bilakaerari dagokionez (1991-2016), lehenengo gune soziolinguistikoan etxean euskara edota euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoak ez du ia aldaketarik izan (-0,2 puntu). Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, 4,8 puntu egin du behera. Etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa 4,7 puntu handiagoa da 2016an 1991n baino.

Bigarren gune soziolinguistikoan, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du azken 25 urteotan: % 14,3 ziren 1991n, eta % 5 dira 2016n. Euskara eta gaztelania erabiltzen zituztenak % 12,9 ziren 1991n, eta % 7,6 dira 2016an.

Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora egin du. 1991n etxean gaztelania erabiltzen zutenak %72,2 ziren eta %84,6 dira 2016an. Etxean beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak ere gora egin dute: 1991n %0,5 ziren, eta %2,8 dira 2016an.

Bigarren guneko soziolinguistikokoan euskararen erabilera izan duen beherakada ulertzeko, kontuan hartu behar da 1991n lehenengo guneko soziolinguistikokoan zeuden udalerririk gehienak bigarren gunekoan daudela gaur egun. Horien artean, EAEko udalerririk handienak: Gasteiz, Bilbo, Barakaldo, Getxo, Irun, Santurtzi edo Portugalete, besteak beste. EAEn euskararen ezagutzak izaten ari den bilakaera positiboaren ondorioa da aldaketa hori, bereziki hezkuntzan eta helduen euskalduntzean egiten ari den ahaleginari esker. Baina bigarren guneko soziolinguistikokoan bizi diren hainbat eta hainbat euskaldunek ez dituzte oraindik euskara normaltasunez erabiltzeko oinarrizko baldintzak: harreman-sare eta erraztasun nahikoa euskaraz. Harreman-sarea txikia da, baita etxean ere. Izan ere, euskaldun gazte asko daude guraso erdaldunak dituztenak, eta horrek, noski, erabat baldintzatzen du euskararen erabilera etxean. Gainera, bigarren guneko soziolinguistikokoan bizi diren euskaldun gehienek bigarren hizkuntza da euskara, eta gehienek erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz euskaraz baino. Bi baldintza horiek modu esanguratsuan hobetzen ez diren bitartean, nekez egingo du gora euskararen erabilera.

Hirugarren guneko soziolinguistikokoan ere behera egin du, azken 25 urteotan, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak (-10,1 puntu), eta baita euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenenak ere (-1,6 puntu). Aldiz, hazi egin da gaztelaniaren erabilera eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza batena (9,4 puntu eta 2,1 puntu, hurrenez hurren).

Laugarren guneko soziolinguistikokoan, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 1991 eta 2016 artean (-10,4 puntu); etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoak ere bai (-1,6 puntu). Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak, aldiz, gora egin du (10 puntu), baita euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenenak ere (2,1 puntu).

Laburbilduz, beraz, 1991 eta 2016 artean lehenengo guneko soziolinguistikokoan gora egin du etxean euskara eta euskara zein gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoak, eta behera etxean gaztelania erabiltzen dutenena. Bigarren, hirugarren eta laugarren guneko soziolinguistikokoan, aldiz, kontrakoa gertatu da. Hau da, 2016an 1991n baino txikiagoa da etxean euskara eta euskara zein gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoak, eta handiagoa etxean gaztelania erabiltzen dutenena.

Etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du lau gune soziolinguistikoetan; proportzionalki talde horrek izan du hazkunderik handiena, bereziki azken hamarkadan.

**21. taula.** Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)

	1. gunea		2. gunea		3. gunea		4. gunea	
	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016
<b>Euskara</b>	1,2	1,0	14,3	5,0	43,3	33,2	78,4	67,9
<b>Euskara eta gaztelania</b>	3,3	3,5	12,9	7,6	17,2	15,6	10,1	8,5
<b>Gaztelania</b>	94,9	90,1	72,2	84,6	39,1	48,5	11,1	21,1
<b>Beste bat</b>	0,6	5,3	0,5	2,8	0,4	2,8	0,4	2,5

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

#### 4.5. Etxeko hizkuntzaren erabilera udalerrriaren arabera

EAEko udalerrriak bost multzotan mailakatu daitezke, etxean erabiltzen den euskara-ehunekoaren arabera.

Lehenengo multzoa 60 udalerrrik osatzen dute. Eremu euskaldunetan daude, eta txikiak dira gehienak (Azpeitia, Ondarroa eta Lekeitio dira multzo honetako udalerrri handienak). EAEko biztanleen %3,5 eta euskaldunen %7,1 bizi dira udalerrri horietan. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa %60 eta %90 artean dago. Erabilerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dute herritarren %60 eta %90 artean. Hau da, bat datoz etxean euskara jaso dutenen eta etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak gehituz gero, udalerrri horietan guztietan, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarrak %70etik gora dira. Gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa %5 eta %30 artean dago (batez beste %19). Udalerrri horien erdietan euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %2 baino gutxiago dira, baina beste erdian %2 eta %6 bitartean dira.



Bigarren multzoa 42 udalerrik osatzen dute. Gehienak (30) 3. gune soziolinguistikoan daude, eta gainerako 12ak 4. gunean. Zarautz, Zumaia, Bermeo, Oñati eta Azkoitia multzo honetan daude. EAeko biztanleen %6,8 eta euskaldunen %12,3 bizi dira udalerrri horietan. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa %45 eta %70 artean dago. Erabilerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa %40 eta %60 bitartean dago.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak gehituz gero, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarrak %55 eta %75 bitartean daude. Gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa %20 eta %40 artean dago (batez beste %34). Euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %1 eta %4 bitartean daude (batez beste %2).

Hirugarren multzoa 46 udalerrik osatzen dute, eta guztiak daude 3. gune soziolinguistikoan. Horien artean hainbat eskualde-buru daude: Tolosa, Gernika-Lumo, Arrasate, Eibar eta Beasain. EAeko biztanleen %15,1 eta euskaldunen %22,2 bizi dira udalerrri horietan. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa %30 eta %50 artean dago. Erabilerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa %20 eta %40 bitartean dago.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak gehituz gero, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarrak %35 eta %55 bitartean daude. Gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa %40 eta %60 artean dago. Multzo honetan ere euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %1 eta %4 bitartean daude (batez beste %2).

Laugarren multzoa 31 udalerrik osatzen dute, gehienak (25) 2. gune soziolinguistikoan daude, eta gainerako 6ak 3. gunean. Multzo honetan daude Donostia, Irun, Errenteria, Durango eta Galdakao. EAeko biztanleen %21,7 eta euskaldunen %23 bizi dira udalerrri horietan. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa %5 eta %30 artean dago. Etxeke hizkuntzari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa %5 eta %20 bitartean dago.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak gehituz gero, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarrak %10 eta %40 bitartean daude. Gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa %60 eta %80 artean dago (batez beste %74). Multzo honetan ere euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak %1 eta %4 bitartean daude (batez beste %2).

Bosgarren multzoa 72 udalerrik osatzen dute, gehienak (54) 2. gune soziolinguistikoan daude, eta gainerako 18ak 1. gunean. Multzo honetan daude Bilbo, Gasteiz, Bilbo Handiko udalerriak eta Arabako Errioxako eta Mendialdekoak, besteak beste. EAEko biztanleen % 52,9 eta euskaldunen % 35,3 bizi dira udalerririk horietan. Lehen hizkuntzari dagokionez, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa % 7 baino txikiagoa da, eta etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa % 5 baino txikiagoa.

Etxean euskara erabiltzen duten horiei euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak gehituz gero, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten herritarrak % 2 eta % 14 bitartean daude. Gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa % 85etik gorakoa da. Multzo honetako udalerririk gehienetan ere euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 1 eta % 4 bitartean daude, baina 14 udalerritan ehunekoa % 5etik gorakoa da.


Egindako multzokatzearen arabera, argi ikusten da etxeko erabilerak lehen hizkuntzarekin (erraztasunarekin) eta euskadunen dentsitatearekin (harreman-sarearekin) duen harreman zuzena.

#### **4.6. Etxeko hizkuntzaren erabilera adinaren eta sexuaren arabera**

2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, 25 urtetik beherako gazteak eta 80 urtetik gorako adinekoak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak. 25 urtetik beherakoen % 16,5ek erabiltzen du euskara etxean, eta 80 urtetik gorakoen % 15,5ek. Gainerako adin-taldeetan, etxean euskara erabiltzen dutenak % 15 baino gutxiago dira.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekorik handiena ere 25 urtetik beherako gazteek dute (% 18,1). Eta gazte horien artean, adinak behera egin ahala, orduan eta handiagoa da etxean hizkuntza biak erabiltzen dituztenen ehunekoa. Izan ere, 5 eta 9 urte bitarteko neska-mutilen % 23,5ek erabiltzen ditu bi hizkuntzak etxean. Adinak gora egin ahala, behera egiten du etxean hizkuntza biak erabiltzen dituztenen ehunekoak. Hala, 60 urtetik gorakoen artean etxean hizkuntza biak erabiltzen dituzten herritarrak % 5 edo gutxiago dira.

**54. irudia.** Etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak adinaren arabera. EAE, 2016 (%)




Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Gaztelaniaren erabilera etxean nagusi da adin-talde guztietan. Hala ere, gaztelaniaren erabilera handiagoa da 45 urtetik gorakoek artean 45 urtetik beherakoek artean baino. 45 urtetik gorako adin-talde guztietan, lau herritarretik hiruk baino gehiagok erabiltzen dute gaztelania etxean. 45 urtetik beherakoek artean, aldiz, %75 baino txikiago da etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa, eta adinak behera egin ahala, orduan eta txikiagoa da ehunekoa. Izan ere, 25 urtetik beherako gazteen artean, etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoa %70 baino txikiagoa da, eta 15 urtetik beherakoek artean %60 edo txikiagoa.

Azkenik, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa %1 baino txikiagoa da 65 urtetik gorako herritarren artean. 65 urtetik beherako herritarren artean etxean beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak gora egiten du adinak behera egin ahala. Etxean beste hizkuntza bat gehien erabiltzen dutenak 20 eta 40 urte bitarteko herritarrak dira (batez beste %4,8). 20 urtetik beherako gazteen artean etxean beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoa %3 baino handiagoa da.

**55. irudia.** Etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak adinaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

Orain arte etxean euskara erabiltzeari dagokionez ikusitako joerak ez datoz guztiz bat EAeko hiru lurraldeetan. Aldea Araban dago. Izan ere, Arabako herritarren artean, etxeko erabilerak gora egiten du adinak behera egin ahala. Adineko pertsonak dira etxean euskara gutxien erabiltzen dutenak (60 urtetik gorakoen artean % 1,5 baino gutxiago), eta gazteak gehien erabiltzen dutenak (40 urtetik beherakoen artean batez beste % 3,5). Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, EAerako azalduetako joera berberak antzematen dira, hau da, Bizkaiko eta Gipuzkoako nagusiak eta gazteak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak. Hala ere, kontuan hartu behar da ehunekoak oso bestelakoak direla bi lurralde horietan. Izan ere, Gipuzkoan etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa % 23 baino handiagoa da adin-talde guztietan; Bizkaian, aldiz, % 13 baino txikiagoa da adin-talde guztietan.

Etxean euskararen eta gaztelaniaren, bien, erabilerari dagokionez, EAeko joera errepikatu egiten da hiru lurraldeetan, hau da, adinak behera egin ahala gora egiten du etxean hizkuntza biak erabiltzen dituztenen ehunekoak. Hiru lurraldeetan 15

urtetik beherako gazteak dira etxean hizkuntza biak gehien erabiltzen dituztenak, eta aldea handia da gainerako adin-taldeekiko (5 puntukoa edo handiagoa).

Gaztelania erabiltzen dutenak nagusi dira hiru lurraldeetako adin-talde guztietan, Gipuzkoako 20 urtetik beherako gazteen artean izan ezik. Izan ere, 20 urtetik beherako gazte gipuzkoarren artean gehiago dira etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak gaztelaniaz edo euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean aritzen direnak baino.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 40 urtetik beherakoek erabiltzen dute gehien euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat etxean, baina ehunekorik altuenak Arabakoak dira (batez beste %6,4); Bizkaian eta Gipuzkoan, 40 urtetik beherakoen batez besteko erabilera txikiagoa da (%3,6 eta %4,6 hurrenez hurren).

1991-2016 aldiko bilakaerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 40 urtetik gorako adin-taldeetan, eta gora egin du 40 urtetik beherako adin-taldeetan. Gainera, adinak gora egin ahala, handiagoa izan da etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoaren jaitsiera, nahiz eta gaur egun, oraindik ere, 80 urtetik gorakoak diren, gazteekin batera, etxean euskara gehien erabiltzen dutenak. 40 urte baino gutxiago dutenen artean, aldiz, kontrakoa gertatu da. Hau da, adinak behera egin ahala, handiagoa izan da etxean euskara erabiltzen dutenen hazkundera, eta 25 urte lehenago ez bezala, 2016an gazteen artean dago etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena.

Etxean euskararen eta gaztelaniaren, bien, erabilerari dagokionez, 25 urte horietan ehunekoak behera egin du 60 urtetik gorako adin-taldeetan, eta gora egin du 60 urtetik beherako adin-taldeetan. 60 urtetik gorako kasuan, erabilera batez bestean 2 puntu jaitsi da. 60 urtetik beherakoen artean izandako bilakaerak bi zati ditu: 25 eta 60 urte bitartekoek etxean bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen ehunekoaren hazkundera 2 puntu baino txikiagoa izan da, eta 25 urtetik beherakoengan, aldiz, hazkunde handia gertatu da azken 25 urteotan, eta zenbat eta gazteagoa orduan eta handiagoa (4 eta 10 puntu bitartekoa).

1991 eta 2016 bitartean, etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak behera egin du 55 urtetik beherakoen artean, eta gora 55 urtetik gorakoaren artean. Oro har esan daiteke gaztelaniaren erabilerak gora egin duen adin-taldeetan, gorakada hori handiagoa izan dela adinak gora egin ahala (70 urtetik gorako nagusien artean, batez beste 8 puntu), eta beherakada izan duten adin-taldeetan, beherakada hori handiagoa izan dela adinak behera egin ahala (30 urtetik beherako gazteen artean, batez beste 14 puntu).

1991-2016 aldian, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du adin-talde guztietan, batez ere 2006tik

aurrera. Hazkunderik handiena 40 urtetik beherako herritarren artean gertatu da (batez beste 4 puntu).

Etxeko hizkuntzaren erabilera sexuaren arabera aztertuz gero, gizonezkoek eta emakumezkoek egiten duten erabileraren artean dagoen aldea 0,2 puntukoa baino txikiagoa da, erabiltzen duten hizkuntza erabiltzen dutela. Hau da, esan daiteke oro har ez dagoela alde esanguratsurik gizonezkoen eta emakumezkoen etxeko erabileran. Hori bai, etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen direnean, etxean euskara erabiltzen duten emakumezkoen ehunekoa zertxobait handiagoa da; eta etxean gaztelania edo euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen direnean, alderantziz gertatzen da.

**22. taula.** Etxeko hizkuntzaren erabilera sexuaren arabera. EAE, 2016 (%)

	<b>Guztira</b>	<b>Euskara</b>	<b>Euskara eta gaztelania</b>	<b>Gaztelania</b>	<b>Beste bat</b>
<b>Guztira</b>	100	13,8	9,5	73,9	2,8
<b>Gizonezkoak</b>	100	13,7	9,4	74,0	2,9
<b>Emakumezkoak</b>	100	13,9	9,6	73,9	2,7

*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.*

Gizonezkoek eta emakumezkoek etxean erabiltzen duten hizkuntzan dagoen aldea areagotu egiten da adinaren arabera irakurketa eginez gero. Aldeak esanguratsuak dira etxean euskara eta gaztelania erabiltzen direnean eta etxean gaztelania erabiltzen denean.

Euskara eta gaztelaniaren erabilerari dagokionez, emakumeen erabilera gizonezkoena baino handiagoa da adin-talde guztietan, baina aldea areagotu egiten da 35 eta 55 urte bitartean (puntu 1ekoa baino handiagoa da).


Gaztelaniaren erabilerari dagokionez, gizonezkoen erabilera emakumezkoena baino handiagoa da ia adin-talde guztietan, eta aldea areagotu egiten da 30 eta 50 urte bitartean (1,5 puntukoa baino handiagoa da).

#### 4.7. Etxeko hizkuntzaren erabilera euskaldunen artean, lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera

Atal honetan, etxeko hizkuntzaren erabilera aztertuko da, baina euskaldunak bakarrik hartuko dira kontuan.

Euskaldunen %33,6k erabiltzen dute euskara etxean, %22,9k euskara eta erdara erabiltzen dituzte, eta %43,6k ez dute euskararik erabiltzen etxean.

**56. irudia.** Euskaldunen etxeko hizkuntzaren erabilerearen bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

1991n, euskaldunen erdiak baino gehiagok (%52,5) erabiltzen zuen euskara etxean, eta euskaldunen ia laurdenak (%24,1) euskara eta gaztelania erabiltzen zituen. Etxean euskara erabiltzen ez zuten euskaldunak %23,4 ziren.

Hortaz, 1991 eta 2016 bitartean, etxean euskara erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak 19 puntu egin du behera, eta beste horrenbeste hazi da etxean euskara erabiltzen ez duten euskaldunen ehunekoa (20 puntu).

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituzten euskaldunen ehunekoak 1,3 puntu egin du behera 1991 eta 2016 bitartean. Hala ere, badirudi azken 5 urteotan joera-aldaketa egon dela. Izan ere, 2011 eta 2016 bitartean, etxean euskara eta

gaztelania erabiltzen dituzten euskaldunen ehunekoak 5,2 puntu egin du gora. Ikusi beharko da datozen urteotan joera-aldaketa hori berresten den ala ez.


Euskaldunen erabilera lehen hizkuntzaren arabera aztertuz gero, garbi ikusten da lehen hizkuntzak etxeko erabileran duen eragina. Izan ere, lehen hizkuntzak lotura zuzena du hizkuntza erabiltzeko erraztasunarekin, eta erraztasuna da, harreman-sarearekin batera, euskararen erabilera baldintzatzen duen faktore nagusia.

Lehen hizkuntza euskara duten euskaldunen % 68,5ek euskara erabiltzen du etxean, % 19,3k euskara eta erdara, eta % 12,2k ez du euskararik erabiltzen etxean.

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania jaso dituzten euskaldunen artean, hau da, jatorrizko elebidunen artean, etxean euskara erabiltzen dutenak % 13 dira, eta euskara eta erdara erabiltzen dituztenak % 54. Jatorrizko elebidunen herenak (% 33) ez du euskararik erabiltzen etxean.

Lehen hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat duten euskaldunen artean, hau da, euskaldun berrien artean, % 6,7k euskara erabiltzen du etxean, % 17,9k euskara eta erdara, eta % 75,4k ez du euskararik erabiltzen etxean.

57. irudia. Etxeko hizkuntzaren erabilera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika.

1991-2016 aldiko bilakaerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa jaitsi egin da euskaldun zaharren artean (-2,8 puntu) eta igo jatorrizko elebidunen (4,3 puntu) eta euskaldun berrien artean (2,8 puntu).



Euskaldunen etxeko erabilera adinaren arabera aztertuz gero, etxean euskara erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak behera egiten du adinak behera egin ahala. Izan ere, 70 urtetik gorako euskaldunen artean, %60tik gora dira etxean euskara erabiltzen dutenak; 30 urtetik beherako gazte euskaldunen artean, aldiz, lautik bat baino gutxiago dira etxean euskara erabiltzen dutenak.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituzten euskaldunei dagokienez, 35 eta 55 urte bitarteko helduak eta 15 urtetik beherako gazteak dira etxean hizkuntza biak gehien erabiltzen dituztenak. Bi multzoetan %25ek inguru erabiltzen dituzte hizkuntza biak etxean.

Etxean euskara erabiltzen ez duten euskaldunei dagokienez, ehunekoak gora egiten du adinak behera egin ahala. Izan ere, 70 urtetik gorako euskaldunen artean %20 baino gutxiago dira etxean euskara erabiltzen ez dutenak; 30 urtetik behariko gazte euskaldunen artean, aldiz, erdiek baino gehiagok ez dute etxean euskara erabiltzen.

Etxeko hizkuntzaren erabilera sexuaren arabera aztertuz gero, gizonezko euskaldunen eta emakumezko euskaldunen arteko aldeak gizarte osoan oro har dauden berberak dira: aldea 0,2 puntukoa edo txikiagoa da, erabiltzen duten hizkuntza erabiltzen dutela. Beraz, esan daiteke oro har ez dagoela alde esanguratsurik.



## 5. LABURBILDUZ

- Mende hau hasi denetik, aurreko urteetako joerarekin apurtuz, biztanleriak gora egin du EAeko hiru lurraldeetan. Horrela, atzerrian jaiotako biztanleriari esker (gazteak eta emakumezkoak gehienak), errekupeazio demografiko txiki bat izan da, nahiz eta saldo begetatiboa negatiboa izan. Batetik, biztanleriaren zahartze-prozesuak aurrera jarraitu du. Bestetik, jaiotza-tasa jaitsi egin da ugalkortasun maila txikiagatik.
- Hiru gertaera horiek eragina dute biztanleriaren eta hizkuntzaren bilakaeran: immigrazioak (20 eta 34 urte bitartekoen %20 atzerrian jaiotakoak dira), zahartze-prozesuak (biztanleriaren %22,3k 65 urte edo gehiago ditu) eta jaiotza-tasa jaisteak (1,3 jaiotza emakumeko da ugalkortasun-indizea, belaunaldi-ordezkapenerako beharrezkoak diren 2,1etik oso urrun).
- Hizkuntza-ereduen ezarpena giltzarria izan da umeak eta gazteak euskalduntzeko. Gaur egun ikasleen %66,8k D ereduan ikasten du, eta %18,7k B ereduan. Horrezaz gain, helduen euskalduntzeari esker euskaldun berrien zein euskaldun hartzaileen ehunekoak hazkunde handia izan du, are handiagoa emakumezkoen kasuan. Izan ere, euskaltegietan euskara ikasten aritu direnen artean, hirutik bi emakumezkoak dira, eta horrela izan da urte askoan.
- 2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren arabera, 846.337 biztanle euskaldunak dira EAEn (%41), euskaldun hartzaileak 308.272 dira (%15), eta erdaldunak 907.037 dira (%44). Euskaldunen bilakaerari erreparatuz, 1986an baino 349.000 euskaldun gehiago dago 2016an: ehunekoetan 16,3 puntuko hazkundera izan dute euskaldunek (%24,7 versus %41).
- Araban %27,4 dira euskaldunak, Bizkaian %35,3 eta Gipuzkoan %56,5. 1986-2016 aldirian, lurralde guztietan egin dute gora euskaldunek: Araban 21 puntuko hazkundera izan dute, Bizkaian 18koa eta Gipuzkoan 13koa.

- 5-19 urte bitartekoek dute euskaldunen ehunekorik handiena (% 80tik gorakoa). Adinean gora egin ahala, murriztuz doa euskaldunen ehunekoa, eta txikiena 65-79 urte bitartekoek dute (% 15). Aldeak handiak dira adinaren arabera. Era berean, adin-talde batzuetan (35-54 urte bitartekoek) emakumezkoek gizonetzkoek baino euskaldunen ehuneko handiagoa dute, batez ere Araban. Horrela, Arabako 35-39 urte bitartekoen artean, euskaldunen ehunekoa honakoa da: emakumezkoen % 30,6 versus gizonetzkoen % 23.
- Lehen hizkuntzari dagokionez, biztanleen % 18,3k euskara soilik jaso du etxean eta beste % 5,7k euskara eta gaztelania. Era berean, gero eta gehiago dira etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jasotzen dutenak (% 4,4). 1986-2016 aldian, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa jaitsi egin da (2,3 puntu), eta euskara eta gaztelania batera jaso dutenen ehunekoa, aldiz, igo (2 puntu).
- 2016an, 20 urte baino gutxiagoko ume eta gazteen % 21ek euskara soilik jaso du etxean eta ia % 14k euskara eta gaztelania. 1986an, ordea, 20 urtetik beherakoek % 16k jaso zuten euskara soilik etxean (% 21 versus % 16), eta euskara eta gaztelania batera jaso zutenen ehunekoa 2016koaren erdia baino txikiagoa zen (% 14 versus % 6).
- Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera aztertuz gero, euskaldunen ia erdiak (% 45,5) euskara ez den beste hizkuntza bat jaso du etxean. Etxean euskara jaso dutenak % 42,3 dira, eta euskara eta gaztelania jaso dituztenak % 12,2.
- Etxean euskara ez den beste hizkuntza bat jaso duen euskaldunen ehunekoa areagotu egin da adinak behera egin ahala. Izan ere, 35 urtetik beherako euskaldunen erdiak baino gehiagok euskara ez den beste hizkuntza bat jaso du etxean.
- Lehen hizkuntzaren bilakaerak euskaldunen ezaugarrien aldaketa ekarri du. Izan ere, duela 30 urte, gaur egun ez bezala, erabat nagusi ziren etxean euskara jaso zuten euskaldunak (1986an % 76,8). Aldaketa horrek eragin zuzena izaten ari da euskararen erabileran, bereziki etxean.
- Etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak ez du aldaketarik izan 1991-2016 aldian: % 13,8 dira 2016an, 1991ko ehuneko bera. Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoak, aldiz, gora egin du (1,5 puntu), baita etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen ehunekoak ere (2,3 puntu). Etxean gaztelaniaz mintzatzen direnak nagusi izaten jarraitzen badute ere, 1991n baino gutxiago dira 2016an (3,7 puntu).

- Etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena 25 urtetik beherako gazteen artean dago. Gauza bera gertatzen eta etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenen ehunekoarekin. Gaztelania erabiltzen dutenak nagusi dira adin-talde guztietan, baina ehunekoak behera egiten du adinak behera egin ahala. Etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat gehien erabiltzen dutenak 20 eta 40 urte bitarteko herritarrak dira.
- Etxeko hizkuntzaren erabilera sexuaren arabera aztertuz gero, oro har ez dago alde esanguratsurik gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Hori bai, etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen direnean, zertxobait handiagoa da emakumezkoen ehunekoa.
- Lehen hizkuntza euskara duten euskaldunak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak (%68,5). Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania jaso dituzten euskaldunen artean, etxean euskara erabiltzen dutenak % 13 dira, eta lehen hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat duten euskaldunen artean %6,7.



## 6. TAULEN AURKIBIDEA

<b>1. taula.</b>	Biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2019	13
<b>2. taula.</b>	Biztanleriaren banaketa adin-talde nagusien eta sexuaren arabera. EAE, 2019	14
<b>3. taula.</b>	Biztanleriaren bilakaera adin-talde nagusien arabera. EAE, 1981-2019 (%)	15
<b>4. taula.</b>	Biztanleriaren banaketa udalerrien tamainaren arabera. EAE, 2019 (%)	17
<b>5. taula.</b>	Hiriburuetakoko biztanleriaren bilakaera. EAE, 1981-2019	17
<b>6. taula.</b>	Irakaskuntza ez unibertsitarioko ikasleak hizkuntza-ereduaren arabera. EAE, 2017/18	23
<b>7. taula.</b>	Irakaskuntza ez unibertsitarioko ikasleen hizkuntza-ereduen bilakaera. EAE, 1983/84-2017/18	25
<b>8. taula.</b>	Helduen euskalduntzea mailaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2018/19	28
<b>9. taula.</b>	Helduen euskalduntzearen bilakaera. EAE, 2000/01 -2018/19	29
<b>10. taula.</b>	Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2016	36
<b>11. taula.</b>	Euskaldunen bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1986-2016 (%)	39
<b>12. taula.</b>	Gune soziolinguistikoen bilakaera. EAE, 1986-2016	41
<b>13. taula.</b>	Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2016	45
<b>14. taula.</b>	Euskaldunak lurraldearen eta adinaren arabera. EAE, 2016 (%)	48
<b>15. taula.</b>	Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2016	56
<b>16. taula.</b>	Lehen hizkuntza eskualdearen arabera. EAE, 2016 (%)	59
<b>17. taula.</b>	Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta eskualdearen arabera. EAE, 2016 (%)	73
<b>18. taula.</b>	Euskaldunak lehen hizkuntzaren, adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2016 (%)	78
<b>19. taula.</b>	Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1991-2016	83
<b>20. taula.</b>	Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera eskualdearen arabera. EAE, 1991-2016 (%)	86

<b>21. taula.</b> Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)	90
<b>22. taula.</b> Etxeko hizkuntzaren erabilera sexuaren arabera. EAE, 2016 (%)	96



## 7. IRUDIEN AURKIBIDEA

<b>1. irudia.</b> Biztanleriaren piramidearen bilakaera. EAE, 1981-2019 (%)	16
<b>2. irudia.</b> Atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera. EAE, 2001-2019 (%)	18
<b>3. irudia.</b> Atzerriko biztanleriaren bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 2001-2019 (%)	19
<b>4. irudia.</b> Atzerrian jaiotako biztanleriaren piramidea. EAE, 2019 (%)	20
<b>5. irudia.</b> Atzerrian jaiotako biztanleriaren jatorria lurraldearen arabera. EAE, 2019 (%)	21
<b>6. irudia.</b> Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak. EAE, 2017/18 (%)	22
<b>7. irudia.</b> Hizkuntza-ereduak lurraldearen arabera. EAE, 2017/18 (%)	24
<b>8. irudia.</b> Hizkuntza-ereduen bilakaera. EAE, 1983/84-2017/18 (%)	25
<b>9. irudia.</b> Hizkuntza-ereduen bilakaera ikasketa mailaren arabera. EAE, 1996/97-2017/18 (%)	26
<b>10. irudia.</b> Helduen euskalduntzea mailaren arabera. EAE, 2018/19 (%)	27
<b>11. irudia.</b> Helduen euskalduntzearen bilakaera sexuaren arabera. EAE, 2001/02-2018/19 (%)	30
<b>12. irudia.</b> Helduen euskalduntzea sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2018/19 (%)	30
<b>13. irudia.</b> Helduen euskalduntzea adinaren arabera. EAE, 2018/19 (%)	31
<b>14. irudia.</b> Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2016 (%)	33
<b>15. irudia.</b> Euskaldunen bilakaera. EAE, 1986-2016	34
<b>16. irudia.</b> Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAE, 1986-2016 (%)	34
<b>17. irudia.</b> Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)	35
<b>18. irudia.</b> Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1986-2016 (%)	36
<b>19. irudia.</b> Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera. EAE, 2016 (%)	37
<b>20. irudia.</b> Gune soziolinguistikoen bilakaera. EAE, 1986-2016 (%)	40
<b>21. irudia.</b> Hizkuntza-gaitasuna hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)	43
<b>22. irudia.</b> Euskaldunak adinaren arabera. EAE, 2016 (%)	44
<b>23. irudia.</b> Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1986-2016 (%)	47

<b>24. irudia.</b> 25-54 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2016 (%)	49
<b>25. irudia.</b> 15-54 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Araba, 2016 (%)	50
<b>26. irudia.</b> 25-59 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Bizkaia, 2016 (%)	50
<b>27. irudia.</b> 25-54 urte bitarteko euskaldunak sexuaren eta adinaren arabera. Gipuzkoa, 2016 (%)	51
<b>28. irudia.</b> Lehen hizkuntza. EAE, 2016 (%)	53
<b>29. irudia.</b> Lehen hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1986-2016 (%)	54
<b>30. irudia.</b> Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)	55
<b>31. irudia.</b> Lehen hizkuntzaren bilakaera. Araba, 1986-2016 (%)	56
<b>32. irudia.</b> Lehen hizkuntzaren bilakaera. Bizkaia, 1986-2016 (%)	57
<b>33. irudia.</b> Lehen hizkuntzaren bilakaera. Gipuzkoa, 1986-2016 (%)	58
<b>34. irudia.</b> Lehen hizkuntza gune soziolingüistikoaren arabera. EAE, 2016 (%)	60
<b>35. irudia.</b> Lehen hizkuntza hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)	61
<b>36. irudia.</b> Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2016 (%)	63
<b>37. irudia.</b> Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. EAE, 1986-2016 (%)	64
<b>38. irudia.</b> Lehen hizkuntza adinaren arabera. Araba, 2016 (%)	65
<b>39. irudia.</b> Lehen hizkuntza adinaren arabera. Bizkaia, 2016 (%)	66
<b>40. irudia.</b> Lehen hizkuntza adinaren arabera. Gipuzkoa, 2016 (%)	67
<b>41. irudia.</b> Lehen hizkuntza sexuaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)	68
<b>42. irudia.</b> Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2016 (%)	69
<b>43. irudia.</b> Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2016 (%)	70
<b>44. irudia.</b> Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1986-2016 (%)	71
<b>45. irudia.</b> Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)	72
<b>46. irudia.</b> Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta hiriburuaren arabera. EAE, 2016 (%)	74
<b>47. irudia.</b> Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta gune soziolingüistikoaren arabera. EAE, 2016 (%)	75
<b>48. irudia.</b> Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. EAE, 1986-2016 (%)	77
<b>49. irudia.</b> Etxeko hizkuntzaren erabilera. EAE, 2016 (%)	79
<b>50. irudia.</b> Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)	80
<b>51. irudia.</b> Etxeko hizkuntzaren erabilera lurraldearen arabera. EAE, 2016 (%)	81
<b>52. irudia.</b> Etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak eskualdearen arabera. EAE, 2016 (%)	85
<b>53. irudia.</b> Etxeko hizkuntzaren erabilera gune soziolingüistikoaren arabera. EAE, 2016 (%)	88

<b>54. irudia.</b> Etxean euskara edo euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak adinaren arabera. EAE, 2016 (%)	93
<b>55. irudia.</b> Etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak adinaren arabera. EAE, 2016 (%)	94
<b>56. irudia.</b> Euskaldunen etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2016 (%)	97
<b>57. irudia.</b> Etxeko hizkuntzaren erabilera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 2016 (%)	98

